

artelka

**PSOE,
ESTATU
ALDERDIA**



— **D**enok ezagutzen dugu
PSOEren historia:
langile klaseari traizio
egitetik hasita, marxismoa kritikatu eta
iraultza sozialistari uko egin zionean,
diktadura ondoko trantsizio urteetan
Espainiako Estatua berrantolatu zuen,
gerra zikinaren metodoak ere baliatuta,
eta gaur egungo krisi kapitalistaren
kudeaketaraino; zalantzarik gabe,
alderdi hau da hobekien egokitzen dena
estatu-alderdiaren kontzeptura edo
sozialdemokraziak hain gustuko duen
erregimenaren alderdiaren kontzeptura.

Eduki

6

10

28

44

EDITORIAL

Arteka

Hortxe duzue zuen bidea

KOLABORAZIOA

Mikel Usabiaga

PSOEren eraketa

KOLABORAZIOA

Eneko Carrión

Ezer ez da aldatzen

KOLABORAZIOA

Aitor Gurrutxaga

PSOE: alderdi ustela

Hortxe duzue zuen bidea

Editoriala

Denok ezagutzen dugu PSOEn historia: langile klaseari traizio egite-
tik hasita, marxismoa kritikatu eta
iraultza sozialistari uko egin zio-
nean, diktadura ondoko trantsizio
urteetan Espainiako Estatua berrantolatu zuen,
gerra zikinaren metodoak ere baliatuta, eta gaur
egungo krisi kapitalistaren kudeaketaraino; za-
lantzarik gabe, alderdi hau da hobekien egokitzen
dena estatu-alderdiaren kontzeptura edo sozialde-
mokraziak hain gustuko duen erregimenaren al-
derdiaren kontzeptura.

PSOEk betidanik funtzionatu izan du itsasgarri
gisa; hala, Espainiako Estatuan ezaguna den bi al-
derdien arteko alternantzia, unerik kritikoenetan
gobernatzan du, haustura sozial gordineneko uneet-
an, alegia. Trantsizioan gobernatu zuen, bai eta es-
tatua arrakalatzera bideratuta zegoen independen-
tismoa indartsuen egon zen garaietan ere; eta bizi

ditugun krisi garaiotan ere Gobernuan dago, hain
zuzen ere faxismoaren arriskuak Europa zelatatzen
duenean, horrek sistema kapitalistaren ezegonkor-
tasuna eta hausturarako aukera eragiten baititu.

Gerora ordenaren alderdietan instituzionali-
zatu ziren hainbat indar sozialek bipartidismoa-
ren amaiera aldarrikatzen zutenean, egoera horri
loturiko desengainua ez zuten indar sozial horiek
katalizatu; kontrara, PSOE Gobernura iritsi zen
ziurgabetasunarekin bukatzeko eta gogorazazteko
bi alderdien arteko alternantzia ordena kapitalista-
ren parte dela, bai eta alternantzia hori bukaraztea
aldarrikatzen duen fikzio oro faltsua dela, formal-
ki inprobablea delako eta, nolabait gertatuko balitz
ere, substantzialki ezinezkoa delako: bi alderdien
arteko alternantzia mekanismo formal bat baino ez
da, aldaketaren bitartez jarraikortasuna bermatzea
xede duena.

PSOEk betidanik funtzionatu izan du itsasgarri gisa; hala, Espainiako Estatuan ezaguna den bi alderdien arteko alternantzia, unerik kritikoenetan gobernatzen du, haustura sozial gordineneko uneetan, alegia

Trantsizioaren pertsonaia tragikomiko guztiak agortu zirenean agertu zen PSOEren fartsa, panazko jaka soinean, garaiko langile borrokak estatu kapitalistaren erakundeetara bideratzeko. Grebek eta protesta sozialek zentzua galdu zuten, langileen alderdia boterera heldu zelako, eta hark bideratuko zuen aldaketa benetako instituzionaltasun kapitalista baterantz, zeinetan langile klasearen eskubideak aitortuak izango ziren, klase zapaldua den heinean, klase kapitalistaren eskubideen alboan, haiekiko subordinatuta. Horrekin batera iritsi ziren industria-birmoldaketa, langile andana baten kaleratzea eta langile mugimenduaren gutxinakako baina etengabeko higadura, UGT eta CCOO sindikatuen bidezko haren korporatibizazioa –go-goan izan dezagun CCOO historikoki Espainiako Alderdi Komunistari lotua egon dela, aldizkari honetan aztertu den bezala– eta eskala handiko polizia-errepresioa.

Gerra zikina ere horrekiko guztiarekiko garai-kidea da, eta soilik PSOEk jar zezakeen martxan, haren alderdi izaera zela eta. Garai hartako langile mugimenduaren abangoardiaren zati bat desegituratzea helburu izanik, militante iraultzaile ugari erail zituzten, bai eta hainbat erakunde politiko eta armatutako buruak ere, eta ezinbesteko rola izan zuten asaldura sozial handiko garai hartan hain beharrezkoak ziren gaitasun militanteak desegiteko. PSOE, sozialdemokrazia osoa bezalaxe, estatu-erreminta bat da eta izan da, eta haren helburua une kritikoetan, hau da, haustura posible

***Trantsizioaren
pertsonaia tragikomiko
guztiak agortu zirenean
agertu zen PSOEren
fartsa, panazko jaka
soinean, garaiko
langile borrokak
estatu kapitalistaren
erakundeetara
bideratzeko***

***PSOEren suebaki rola bi estatuen
konponbidea aldarrikatzen du, nahiz
eta aukera horrek modu agerikoan
porrot egin duen, zilegitasunik ez duen
eta Israelgo estatu faxista zilegiztatzen
duen, aldi berean konponbide efektibo
bat ezinezko bilakatzen duen bitartean,
Israelen gerra-makineria elikatzen
baitu, azken 20 urteetako arma-
salmentarik handiena gauzatuta***

Sozialdemokratek diote garrantzitsuena bidea dela, eta ez helmuga. Hortxe duzue, bada, zuen bidea

den momentuetan, boterera hurbiltzen den langile klasearen gidaritza kontziente eta independente oro suntsitzea da, kosta ahala kosta. Horixe bera gertatu da azken krisi kapitalista handiarekin, zeina 2000ko hamarkadan hasi baitzen. Azken 20 urteotan, krisi kapitalistaren urteotan, PSOE 14 urtez egon da Gobernuan. Gobernuan egon ez den sei urteak bat datoz, hain zuzen ere, Kataluniako independentismoaren gorakadarekin, hau da, *procés* izenez ezagutzen dugun horrekin, eta gorakada hori zalantzarik gabe lotua egon zen krisi kapitalistak Espainian eragindako krisiarekin. *Procés* hori, baina, ez zen bukatu independentziaren aldebakarreko aldarrikapenarekin eta ostean PPK agindu zuen autonomiaren interbentzioarekin (epaaketak barne), baizik eta 2018an PSOE Gobernura itzultzearekin amaitu zen; alderdi horrek, esanguratsua den keinu batez, 2021ean indultatu egin zituen aurretiaz kartzelaratutako zituzten edo ihes eginda zeuden buruak.

Logika hori bera aplikatzen da Palestinako genozidioaren kasuan; auzi horrek, gainera, argitasuna dakarkigu. PSOEren suebaki rolak bi estatuen konponbidea aldarrikatzen du, nahiz eta aukera horrek modu agerikoan porrot egin duen, zilegitasunik ez duen eta Israelgo estatu faxista zilegiztatzen duen, aldi berean konponbide efektibo bat ezinezko bilakatzen duen bitartean, Israelen gerra-makineria elikatzen baitu, azken 20 urteetako arma-salmentarik handiena gauzatuta.

Baina ezer ere ez da nahikoa alderdi sozialdemokratentzat PSOEren Gobernua babesteari uzteko, barne hartuta estatutik gabeko nazioetako alderdi nazionalistak, nahiz eta zuzenean pairatu

duen PSOEren gerra zikina. Izan ere, haren ordezkoko PPren Gobernuak gauza bera egingo badu –eta inork ez du zalantzan jartzen hala egingo lukeela–, egungo egoerak, gutxienez, alderdi txikiagoei aukera ematen die pastelaren zati bat eskuratzeko, beren egitura burokratikoak ekonomikoki elikatzeko eta ordenaren alderdiaren enpresa estatal gisa hazten jarraitzeko. Zertarako salatu PSOE, atzetik datozenek gauza bera egingo badute eta salaketa horrek eragingo badu aprobetxatzen jarraitu ezin izatea eta, ondorioz, politika egiteko gaitasunak abolitzea, *id est*, alderdi politiko gisa desagertzea?

Zalantzarik gabe, biziraute logika hori erraz justifika liteke bizi garen gizarte harrapakariko herritar eredugarriarentzat. Alderdi politiko baten kasuan, kolaborazionismoa eta konplizitatea da, eta horrek klase etsaiaren eremuan kokatzen du. Sozialdemokratek diote garrantzitsuena bidea dela, eta ez helmuga. Hortxe duzue, bada, zuen bidea. ●



PSOEren ERAKETA

Testua — **Mikel Usabiaga**



DE



La libertad está en tu mano.

VOTA PSOE



Bere sorreraren mendeurrenean, 1979an, hauteskundeetara aurkeztu zen PSOE, "Ehun urte zintzo eta irmo" leloarekin, eta alderdiaren tradizioaz eta historiaz baliatu zen botererako hautagaitza funtsatzeko. Izan ere, UCDren aurka izandako porrota sozialisten eraldaketarako oinarria izan zen, eta eraldaketa horrek garaipenerako eta 1982an alderdia boterera iristeko zimenduak jarri zituen.

Folkloretik eta fraseologia marxistatik urrundu, eta berrikuntzaren alderdia izatera pasatu zen PSOE. Estatu zaharra berritu, hura Europan sartu eta hain desberdin uzteko asmoa zuen, ezen, Alfonso Guerraren hitzetan, ez zuen ezagutuko "ezta hartaz erditu zen amak ere". Orduantxe, berrikuntza hartan, hasi zen PSOE Estatuko alderdi gisa eratzen, eta Espainiako oligarkiaren zutabe handienetako bat bihurtu zen.

PSOE ZAHARRAREN ERAILKETA

Trantsizioan sartu zen PSOE ezagutezina da gaur egun: merkatu-ekonomia arbuiatzen zuen “sozialismo autogestionatuaren” eredu jugoslaviarraren alde, marxistatzat eta errepublikanotzat zuen bere burua, Francok ezarritako monarkia indargabetzea eskatzen zuen eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatu. Felipe Gonzálezek “bihotzekoren bat emateko moduko auditoriak” hitzematen zituen diktadurari lotutako enpresentzat, erregimenaren errepresioa argi eta garbi kritikatzeko, eta ordurako erabat desegina zegoen errepublika aldarrikatzeko estatu eredu gisa.

González Suresneseko kongresuan (1974) iritsi zen alderdiaren zuzendaritzara. Rodolfo Llopis buru historikoaren ondorengo gisa agertu zen, zeinak kongresu horren ebazpenak onartzeari uko egin baitzion. Suresnesetik 1979ko kongresura bitarteko epe laburrean, sozialistek programa horren gehiengo likidatu zuten. Izan ere, Estatuaren aginterako hautagai errealista gisa aurkezteko, ezinbestekoak izan ziren gutxieneko ideologikoak aldatzeko malgutasuna eta alderdiaren aurrekari historikoen erabateko errebisionismorako erraztasuna. Azken batean, inguruko alderdi guztiak zikinduta zeuden: UCDk, zentro politikoa ordezkatu nahian, diktaduraren amaiera kudeatu izanaren orbana zuen; ezkerretik, PCE irainduegia eta kriminalizatu egia zegoen urte haietan (biraketa eurokomunistak ez baitzuen oraindik fruiturik eman); eta AP, zer esanik ez, frankismoarekin zuen lotura estuak kondentatzen zuen. PSOEren aldaketa azkar eta kamaleonikoak asmatu egin zuen espektro politikoan zentroan hutsune haren erdian estatu-alderdiaren postua hartzeko unea eta lekua. Horren guztiaren erdian, PSOEek bi gako uztartu zituen: irudi moderno eta berritzailea, eta klase-estatu baten konpromisoak zuzendu eta jarraitzeko gai zen oinarri politikoa eta ideologikoa.

1879an sortu zenetik, marxismoa agertu zen alderdiaren ideologia gisa. Pablo Iglesiasen PSOE gazteak lotura estua zuen langileen mugimendurekin eta horien bizi-baldintzak hobetzeko borrokarekin, eta Marx eta Engelsen tradizioarekiko zordun zela aldarrikatu zuen. Are gehiago, ideia horiek guztiak diktaduraren amaierara arte mantendu ziren, teoriarik behintzat. Adibidez, argigarria da Pere Ysàsek egin zuen aipu-hautaketa, 1976ko kongresuaren dokumentu politikoari buruzko pasarte honetan:

***Trantsizioan sartu zen
PSOE ezagutezina da
gaur egun: merkatu-
ekonomia arbuiatzen
zuen “sozialismo
autogestionatuaren”
eredu jugoslaviarraren
alde, marxistatzat eta
errepublikanotzat zuen
bere burua, Francok
ezarritako monarkia
indargabetzea
eskatzen zuen eta
autodeterminazio
eskubidea aldarrikatu***

«XXVII. Kongresua alderdiaren nortasuna definitzeaz ere arduratu zen “Ebazpen Politikoan”: PSOE “klase-alderdia zen, eta, beraz, masa-alderdia, marxista eta demokratikoa”. Klase-alderdia, “langileria-
ren proiektu historikoa defendatzen dugulako eta eta haren alde borrokatzen garelako: esplotazioa desagertzea eta klaserik gabeko gizartea eraikitzea”. Marxista, “gizarte kapitalistaren ezagutzaren [eta] eraldaketaren metodo zientifikoa klase-borroka-
ren bidez ulertzen dugulako, historiaren eragile gisa”; demokratikoa, “barneko eta funtzionamenduko demokrazia zorrotzeta duen erakunde gisa eraturik gaudelako, eraiki nahi dugun gizarte berriaren antzera, zeinaren bermerik handiena bere alde borrokatzen diren erakundeetan baitago”. Alderdia internazionalista eta antiinperialista ere bazen, solidarioa “beste potentzia batzuen inperialismo ekonomiko edo politikoak zapal-
dutako herrien askapen borrokarekin”».

Praktika politiko erradikalik gabe "sozialista" edo "iraultzailea" izatea –diskurtsoetara mugatutako tradizio bezala– arma perfektua zen ezkerraren nagusitasuna bereganatzeko, eta, aldi berean, gobernu-hautagai gisa agertzeko

Hainbat historialarik nabarmendu bezala, tradizio sozialista aldarrikatzea ez zegoen programa politikoari loturik, PCEREkin eta talde sozialistekin lehiatzearekin baizik, ezkerraren sentimendu sozialista zabala bereganatzeko. Praktika politiko erradikalik gabe "sozialista" edo "iraultzailea" izatea –diskurtsoetara mugatutako tradizio bezala– arma perfektua zen ezkerraren nagusitasuna bereganatzeko, eta, aldi berean, gobernu-hautagai gisa agertzeko.

Dena dela, fraseologia horren zati handi bat ezabatu egin behar izan zen sozialisten belaunaldi berriak PSOEri eman nahi zion zeregin historikoa betetzeko: frankismo osteko Espainiako Estatu-ko gobernu-alderdia izatea. Hainbat testuk islatzen dute egindako alimaleko errebisio historikoa, adibidez, *Este viejo y nuevo partido. De congreso a congreso*, zeina alderdiaren 1979ko XXVIII. Kongresurako idatzi zuten, besteak beste, Guerra eta González buruzagi sozialistek. Militanteei zuzendutako testu horrek ezkutatu edo disimulatu egiten ditu alderdiaren historiako pasarte erradikalenak; ondorioz, alderdiak aditzera emandako marxismo historiko hori "marxismoaren, positibismoaren eta errebisionismoaren" arteko nahasketa baino ez da bilakatzen.

Nolanahi ere, halako biraketa ez zen hain erraz egin: 1979ko kongresu horretan, alderdiaren definizio ideologikoan marxismoa mantendu nahi zuen guardia zaharrak lortu zuen garaipena, eta, ondorioz, Felipe Gonzálezek –PSOEko idazkariak– dimisioa aurkeztu zuen. Izan ere, marxismoa estatutuetatik kentzea ezinbesteko korolariora zen exekutibo berriaren planean, alderdia Estatuja gobernatzeko gaitu nahi bazen. Alfonso Guerrak dioenez, dimisioa efektu-kolpe bat baino ez zen, eta eragozpen hori kosta ahala kosta gainditzea zuen helburu. Areago, Felipe González aipatuz azaltzen du asmo hori Guerrak:

«Felipek ziurtatu zidan ezin zuela "gurditik tira egin" gurdian sinetsi ezean, eta etorkizunean dena bidera zitekeela iradoki zidan. "Alfonso, horrela guztia berreraiki eta norabidea berreskuratu ahal izango dugu"».


Marxismoaren eztabaidak beste eztabaida batzuk estali zituen, hala nola autodeterminazio-eskubidea ezabatu izana, nazionalizazioak, iraultza, errepublika, etab. Funtsean, iraganeko elementu ideologikoak apaingarri diskurtsibo bilakatu ziren, hauteskundeei begirako helburuak baino ez zituztenak. Gainerako elementuak ezabatu zituzten, eta Estatu berriaren esparru legala eta, beraz, politikoa erabat onartu izana islatzen zuen horrek. Estatu-ko alderdiaren postua betetzeko aukera historikoa aprobetxatzeko, *status quo* berriaren ordena proiektu politiko propio gisa onartu, eta ziurtatu behar zen ordena konstituzionalaren mugak hausteko dei oro alderdiaren praktikatik kanpo geratuko zela. Oligarkiak Konstituzioan ezarritako aukeretara mugatu behar ziren PSOEren planteamendu politikoak; eta bere egitura eta oinarriak horretaz konbentzitzea izan zen, Felipe Gonzálezek berak zioen bezala, aldaketa ideologiko nagusia:

"Momentu honetan errealitate batetik abiatzen gara –ez gara etorkizunari inolako abiapunturik gabe aurre egiten ari, 1976ko kongresuan gertatu zen bezala–; orain Konstituzioa deritzon oinarri bat dugu. Beraz, alderdiak kontuan izan behar du oinarritzko testu bat dagoela, guk bozkatu ez ezik, defendatu ere egin duguna. Eta testu hori demokrazia egonkortzeko bermea dela. Nire ustez, Konstituziotik abiatuta eraiki behar dira alternatiba politikoak (...)"

BOTERERAKO BIDEA

Erradikalismoa hitzetan eta erabateko moderazioa praktikan konbinatzeak bere fruituak eman zituen. 1977ko hauteskundeetan, PSOE bigarren indar bozkatuena eta ezkerreko lehena izan zen, botoen %29,32rekin. Hemizikloan zituen 118 eserlekuak ordena berria eraikitzearen zerbitzura jarri ziren: Konstituzioa, autonomien Estatuaren hasiera eta Claveroren “kafea guztiontzat”, Moncloako itunak... Hala eta guztiz ere, PSOEk neurri horiek guztiak aurrerapen handitzat jotzea lortu zuen diktaduraren memoriak gori-gori jarraitzen zuen testuinguruan, eta UCDein kontinuisismoaren aurrean alternatiba apurtzaile gisa aurkeztu zen.

1979ko hauteskundeetarako PSOEk bere posizioa sendotu zuen ezkerreko alderdi handi gisa: PCERI lekua kendu zion eta bere boteretik kanpo zeuden sozialisten hautagaitzak bereganatu zituen, hala nola Partido Socialista Popular-Unidad Socialista, sei diputatu zituen alderdi txikiagoen koalizioa. Hala ere, hauteskunde haiek porrot egin zuten, emaitzak nekez aldatu baitziren 1977tik. Hainbeste itxarondako *sorpassoa* ez zen gauzatu. Gainera, urte bereko udal-hauteskundeetan ere ez zuen lortu UCD gaitzitzea, ez botoetan, ez zinegotzietan. Hori dela eta, PCERekin itunak egin behar izan zituen hainbat udalerritan, eta hura gobernu askotan integratu behar izan zuen (PCEk botoen %13 zituen, PSOEk %28 eta UCDein %30).



Erradikalismoa hitzetan eta erabateko moderazioa praktikan konbinatzeak bere fruituak eman zituen. 1977ko hauteskundeetan, PSOE bigarren indar bozkatuena eta ezkerreko lehena izan zen



Testuinguru horretan egin zen aipatutako XX-VIII. Kongresua. PSOEko gazte berritzaileek boterera iristeko eragozpenak gainditzeko azken bultzada eman nahi zuten, baina alderdiaren barruan Izquierda Socialistaren korrontea osatu zuen oposizioa aurrez aurre agertu zen. Francisco Bustelo, Gómez Llorente, Pablo Castellano eta beste batzuek mahaigaineratu zuten eztabaida -74ko Suresneseko kongresutik bertatik egon ziren Gonzálezen hautagaitzaren aurka-, eta marxismoak estatutuetan jarraitu behar zuen ala ez izan zen debatearen ardatza. Neurri batean, eztabaida zabaldu egin zen, alderdian praktikatzen zen pragmatismoa gehiegizkoa ote zen zalantzan jartzearaino, baina ez zen izan alderdiaren klaukiazio ideologikoaren ibilbide luzeari buruzko eztabaida bat ere. Hitz batez, oposizio hori unibertsitaterako intelektual gutxi batzuek osatzen zuten, ez zutenak inolako programa politiko alternatiborik, alderdiarekiko deserrotze sentipen hutsa baizik. Hitzontzikeriaren eta beheranzko praktika demokratikaren joko bikoitzaren bidez, PSOE berriak diskurtso tradizional baina gauzaez horri lotutako sektorearen nahigabea elikatu zuen.

Aipatutako sektore kritikoko figura gehienak “sozialista klasikoak” ziren, hau da, sozialdemokratak, SPD zaharraren zentzu tradizionalan. Atsekabe orokorretik eta definizio ideologikoan marxismoa mantentzeko behar ez oso zehatzetik

abiatzen ziren, horri uko egiteak “klase-borrokari”, eta, ondorioz, “sozialismoa azken helburu gisa” izateari uko egitea ekarriko lukeelako. Haien aurrean, Gonzálezek eta bere jarraitzaileek formulazio ideologikoak praktika politikora egokitu behar zirela defendatzen zuten, eta hori koherentea zen, marko konstituzionala onartzea sozialismoaren eraikuntzatik oso urrun baitzegoen. Izan ere, XXVIII. Kongresuaren aurreko urteetan, ohikoa izan zitzaien dokumentuetan zilipurdika ibiltzea, eraikitzen ari zen demokrazia sozialismoaren aurreko urrats gisa justifikatzen saiatzeko -hain zuten ere horrela aurkeztu zuten autonomien Estatua, autodeterminazio eskubidearen prelude gisa-.

Azkenik, gorago aipatu bezala, sozialista tematen proposamenak kongresuan irabazi arren, Gonzálezek alderdiko idazkaritzari uko eginez konpondu zuen arazoa. Oposizioak ez zuenez hura babestuko zuen proiektu politikorik, sentimendu folkloriko bat besterik ez baitzuen, dimisioak botere-hutsunea eragin zuen eta ezohiko kongresu bat deitu behar izan zen.

Hitzontzikeriaren eta beheranzko praktika demokrataren joko bikoitzaren bidez, PSOE berriak diskurtso tradizional baina gauzaez horri lotutako sektorearen nahigabea elikatu zuen

GOBERNATZEA

1982ko urriaren 28an, sozialisten belaunaldi berriak egin zuen lan nekezak bere fruituak eman zituen: Estatuaren zuzendaritzarekin bateraezina zen diskurtso ororen likidazioa, eta iruditeria kolektiboan freskotasun eta berrikuntza irudia uztartzea, hain zuzen ere. Hautesleen %79,9ko parte-hartzaerekin, PSOEk botoen %48,11 lortu zituen bigarren hauteskunde orokorretan, Konstituzioa onartu ondoren, eta horrek 202 diputatu eman zizkien (ganberaren erdia baino gehiago).

Hauteskunde haietako emaitzak aztertzean, argi geratzen da Felipe Gonzalezen alderdiak ezin hobeto bete zuela ordura arte hutsik egondako Estatu progresistako alderdiaren postua. Bitartean, UCD, Trantsizioko arkitektoa eta frankismo kiratsa zeriona, 168 diputatu izatetik 11 izatera igaro zen; Adolfo Suarez alderdi berriak botoen %2,87 baino ez zituen lortu; eta PCEk ordezkatzeko zuten ezkerreko hegala ere lau diputaturekin hondoratu zen. Ondorioz, PSOE berri eta anbigua, fraseologia ezkertiarrez josita baina proletarioen aldeko benetako konpromiso politikorik gabe, nahi bezala ibili zen eta bi bandoak bereganatu zituen.

Bistan denez, faktore jakin batzuetan oinarritutako honelako azalpen batean, alde batera utzi ohi dira ezinbesteko garrantzia duten beste faktore batzuk. Hala ere, behar-beharrezkoa da aipatzea sozialisten garaipen zabalari ekarpen izugarria egin ziotela bi faktorek: alde batetik, eraldaketaren gobernuak erakutsitako onargarritasunak (bai Arias Navarorenak, bai eta Suarez enak ere) –PCEri eta, zer esanik ez, beste alderdi batzuei erakutsitako onargarritasun txikia ez bezala–; eta, bestetik, SE-CED inteligentzia zerbitzu frankistaren lankidetz

aktiboa, erraztasun materialak emateko –pasapor-teak, esaterako– Trantsizioa zetorrela ikustean eta benetako oposizio antifrankistaren aurkako aliatu potentzialtzat jotzean. Ostera, termino oportunistetan, Suresnesen tesien egokitasuna agerian geratu zen. Izan ere, PSOE, antifrankismoan ohiko esparru sozialistarekin bat egiten zuten taldeetako bat izatetik, Estatuko alderdi demokrata aurrerakoi gisa aurkeztera igaro zen –bipartidismoa hastear zen testuinguruan–, eta aldi berean, ezkerreko botoemaile horien zati handi bat xurgatu zuen, erresistentzia antifrankistak erbestetik eta klandestinitatik sortu zuena.

PSOEk boterean iraun zuen ia hamarkada eta erdian, Gonzalezek 1974ko ildoan pertsonifikatu, eta alderdiaren eta frankismo osteko Estatu berriaren arteko fusioa egonkortu zuen. Trantsizioaren haustura politikorako aukerak itzaliz joan ziren, salbuespen nabarmenak izan ezik, eta Espainiako Estatu Mendebaldeko ordena kapitalistan behin betiko sartu zen. Idazkaritzaren (1974-1997) eta Gobernuaren lehendakariaren bidez, Felipe Gonzálezek eta bere presio-taldeak egungo PSOEri forma eman zioten neurri handi batean. Alderdiak bi gehiengo absolutu lortu zituen –bata 1982an, 202 diputaturekin, eta 1986an bestea, 184rekin–, bakarrik gobernatzea 1989an Parlamentuaren erdiarekin (175 parlamentari), eta, azkenik, CiUren (Convergència) babesaren mendeko gobernu bat, 1993an, gehiengo absolutua galdu zuenean.

CONGRESO
SOE



PSOE, antifrankismoan ohiko esparru sozialistarekin bat egiten zuten taldeetako bat izatetik, Estatuko alderdi demokrata aurrerakoi gisa aurkeztera igaro zen –bipartidismoa hastear zen testuinguruan–, eta aldi berean, ezkerreko boto-emaile horien zati handi bat xurgatu zuen, erresistentzia antifrankistak erbestetik eta klandestinitatetik sortu zuena

PSOEren lehenengo garaipena –eta loriatsuenakrisi testuinguruan gertatu zen: zentro inperialistaren gainmetaketaren eskutik etorri zen kostuen inflazioa, batez ere energia-kostuena, LPEEren (Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea) krisia tarteko; eta, horrekin batera, errentagarritasun txikia eta, beraz, langabezia galanta. Egoera horretan, herrialde kapitalistetan gobernatzen zuten alderdiak beharrezko neurriak hartzeaz arduratu ziren, errentagarritasuna berreskuratzeke eta atzerriko inbertsioa erakartzeko; hots, lan ez-produktiboa ezabatzea, doako zerbitzuetan gastu publikoa egitea, lan-indarraren salmenta erraztea... Obeditzen ez zuena, Gobernuaren kolorea kolore, dibisarik gabe gelditzen zen, balantza komertzial eskasarekin, Nazioarteko Diru Funtsaren abisuak jasotzen, eta ezagun zaigun eta abar luze bat. Patroi horiek arras ezagunak dira, behin eta berriz errepikatu baitziren 80ko hamarkadako Latinoamerikan eta haren zorraren krisiaren amaieran.

PSOEek aurrez aurre zuen testuingurura itzuliz, Gonzalezek eta beretarrek leialtasuna erakutsi zieten nazioarteko merkatuei Moncloako itunetan. 1977an sinatu ziren, nahiz eta oraindik ez zuten boterea eskuratu eta UCDren ezkerreko alternatiba gisa aurkezten ziren. Izan ere, ekaitza saihesten saiatu ziren, itun haiek PSOEren kontua ez balira bezala, eta UGTren eta CCOOren hasierako ezezkoaren alde ere egin zuten. Beste behin ere, gauza bat esatea eta kontrakoa egitea oportunismorako bide egokia zela berretsi zen: bizi-baldintzen nariadura bortitza UCDri egotzi zitzaion, eta PSOEek alternatiba gisa saldu ahal izan zuen bere burua hurrengo urteetan. Nolanahi ere, argi zegoen alderdi horrek Estatuarekin eta Konstituzioan finkatutako merkatu-ekonomiarekin zuen konpromisoa apurtezina zela. Are gehiago, alderdiak Estatuaren kontrola hartu zuenean konpromiso hori indartu baino ez zen egin.

Kontua da PSOErena ez zela kasu isolatua European. “Neorrebeisionistak” zeritzen alderdi sozialistek eurokomunismoak baino askoz lehenagotik egin zioten uko boterea hartzeari eta sozialismoa eraikitzeari, trukean estatu kapitalistaren kudeaketa soziala lortzeko. Amore eman zuten eta, irabaziak salbatzeko, proletarioen zuzeneko eta zeharkako soldataren aurkako erasoaren kudeatzaile bihurtu ziren. François Mitterranden PSF, adibidez, Gonzalezen aurretik iritsi zen boterera, eta goitik behera aldatu zuen bere programa nazioarteko lehiakortasunaren eskakizunen mesedetan. Gauza bera gertatu zen Alemaniako SPDarekin, handik gutxira erori baitzen. Gizarte erreformak lortzeko, klaseen arteko negoziazioaren mesedetan, boltxebikeen iraultza-bideari bortizki eraso zion sozialdemokraziatik geratzen zen apurra urte horietan desegin egin zen. Benetakoa izan ala ez, bere programa guztia indargere geratu zen ongizate-estatuaren desagertpenaren ebidentziaren aurrean: paper erreka eta hitzontzikeria besterik ez zen.

Fenomeno hori ezin hobeto adierazten du Carlos Solchaga ministro ohiak – 1985era arte Industria eta Energiakoa izan zen, eta ondoren Ekonomia eta Ogasunekoak-. “Sozial-liberal” gisa autokalifikatuta, ez zuen Estatuaren gailentasuna onartzen PSOEren programaren parte gisa, eta bere politikaren lehentasuntzat jotzen zituen inflazioaren kontrola eta defizit publikoaren murrizketa. Hain zuzen ere, urte haietan Thatcherren edo Reaganen gobernu kontserbadoreek ezartzen zituzten helburu berak zituen, alegia, neoliberalismo deiturikoarenak. Argi esateko, PSOEren gobernutik urtebete baino ez zen igaro, eta Industria Birmoldaketaren eta Berrindustrializazioen Legea ezarri zuten: askotariko industriak desagerrarazi zituzten, baita 83.000 enplegu ere, eta 1,5 bilioi pezeta gastatu ziren kapitalista batzuen irabaziak salbatzeko. Horri gehitu behar zaizkio, besteak beste, Langileen Estatuaren erreforma – UGTren laguntzarekin, esan beharra dago-, langile prekarioen lan-merkatu duala inauguratu zuena; edota 85eko pentsioen erreforma, kotizazioaldia luzatzen zuena. Neurri horiei guztiei esker, “Espainian irabazten da, denbora laburrenean, diru gehien” ospatu zuen Solchagak.

Luzea da proletarioen soldata arpilatzeako “sozialismo liberalaren” neurrien historia, eta Espainiako Estatuan 1993ra arte iraun zuen; urte horretan, hain zuzen ere, galdu baitzuen Gobernu PPren aurka PSOEak, eta alderdi-bitasunaren eta beraien arteko txandakatze etengabeen estreinaldia izan

zen. Areago, urte horretan bertan PSOEak CiUrekin akordioa lortu izanak gobernuaren programaren izaera guztiz liberalaren berri ematen du.

PSOE-REN ESTATU BERRIA: INTEGRAZIOA ETA ERREPRESIOA

Aipatu zerbitzu sekretu frankistako agente batek, SECEDek, honako hau zioen Suresnes baino lehen PSOErekin izandako elkarriketei buruz, Alfredo Grimaldosek jasotzen duenez:

«SECEDen haiekin biltzen hasia genuen xede, ikusteko ea noraino iristen zen haien ezkertiaratasuna, gogo iraultzailea, ezkerreko grina eta abar. Jarraia epelagoetara, ez hain erradikaletara, hurbilazten saiatzea zen asmoa, Willy Brandtekin gomendatzen zien moderazio pragmatikoaren ildotik (...) Bilerak bakoitzaren ondoren, Zerbitzurako txosten bat idazten genuen (...) Gure inpresioa zen lider ideologikoa, denbora luzez, azkarren, eta sakonen pentsatzen zuena, Pablo Castellano zela. Pisu moralik handiena Nicolas Redondok zeukan. Felipe González hitzun bizkorra iruditu zitzaigun, bikaina, “xarma” zeukan... Baina, bat-batean, cohiba luze bat ateratu, patxadaz piztu eta sifarita batek bezala erre zuen. Detaile txiki horrek harritu egin ninduen. Trazu burges bat zen, bere galtza bakeroei bat ez zetorrena, ez bere alkandora merke koadrodunarekin, ez bere ezkertiaratasunarekin... Nire txosten ofizialean ez nuen aipatu habanoaren txorakeria hura, ezta iradoki zidana ere. Baina nire oharren agenda pribatuan honako hau idatzi nuen: “Felipe González se villarrak grinatsua dirudi, baina hotza da. Zerbait faltsua dauka barnean, engainatzailea. Ez zait ideiaetako gizona iruditu, anbizioetakoak baizik».

Kontatutakoa testigantza polizial baldarra eta anekdotikotik haratago baliorik gabea baino ez da, noski, baina PSOE berriaren funtsa biltzen du. Zuzendaritza gazte eta berriak zekarren Estatu-proiektua, funtsean, Estatu frankista modernizatzea zen, ez haren aldaketa. Ikusi denez, programa zaharra apaingarrietara baztertu zen, folklorikora. Jarraian ikusiko den bezala, hainbat konpromisok markatu zuten programa politikoa: Espainia Gerra Hotzaren Mendebaldeko blokean eskubide osoko kide gisa onar zezaten hartu beharreko konpromisoek, hain zuzen ere. Ildo berean, ez zegoen alderik PSOEren eta teknokrazia frankistaren edo UCDren artean, Trantsizioa sostengatzeko iragan politiko egokia izatea baino ez, horiek biek ez baitzuten halakorik. Beraz, PSOEak alderdi zehatza eta programaduna izateari utzi zion, eta Espainiako Estatu berria finkatzeko kanal bihurtu zen.



**1976ko XXVII.
Kongresuan, alderdiaren
likidazio ideologikoaren
prozesuan funtsezkoa
izan zena, europar
sozialdemokraziaren
ordezkaritza handi bat
egon zen: Willy Brandt
(SPD), Olof Palme (SAP),
Mitterrand (PSF), Pietro
Nenni (PSI) eta Michael
Foot (Alderdi Laborista)**

Mendebaldeko kapitalarekiko eta inperialismoarekiko behin betiko konpromisoa NATOratxikitzeak zigitatu zuen. Mendebaldeko blokean AEBen aginduetara integrazteko proiektua Estatu frankistaren anbizioa izan zen urte askoan. PSOEkin helburu hori lortzeko esku egokiagoa erakutsi zuen, eta horixe zen, hain zuzen ere, Gonzalezen proiektuaren arrakastaren oinarria. 1976ko XXVII. Kongresuan, alderdiaren likidazio ideologikoaren prozesuan funtsezkoa izan zena, europar sozialdemokraziaren ordezkari handi bat egon zen: Willy Brandt (SPD), Olof Palme (SAP), Mitterrand (PSF), Pietro Nenni (PSI) eta Michael Foot (Alderdi Laborista).

Ez da harritzekoa, beraz, Gonzalezek 1985ean Espainiako Estatuaren Europako Ekonomia Erkidegoan (EEE) sartzeko izan zuen beste herrialde batzuen babes zabala: bai sozialistak (bere hautagai-tzaren alde egindako Mitterrand Frantziar, edo Bettino Craxi Italian), bai kontserbadoreak (hala nola Kohl Mendebaldeko Alemanian edo Thatcher EBn). Oro har, Gonzalezek EEEen sartzeko proposamena defendatu zuen, NATOk kide izatea indartzeko.

**Trantsizioak aurrera
egin ahala, adostasun
estatubatuar-alemaniar
hori areagotuz joan
zen. Hona hemen
adibide batzuk: UGTk
AEBko “sindikatu hori”
deiturikoengandik
200 milioi pezeta jaso
zituen; SPDren Ebert
Stiftung fundazioaren
bidez PSOErengana eta
Portugalgo PSrengana
CIAren dirua ibili zen;
edota Kissingerrek
eta Helmut Schmidtek
babesa eman zuten PSOE
Batzorde Demokratikoan
sar ez zedin**

Izan ere, kanpotiko esku-hartzeari buruzko literatura ugari dago, Gonzalezen PSOE berrituaren eraikuntzan erabakigarria izan zena, batez ere SPDrena eta CIArena. Adibide bat jartzearen, Grimaldosek nabarmentzen du yankiek, Portugalen krabelinen iraultza bezalako “kontrolrik gabeko” trantsizioa errepikatze beldurrez, honela esku hartu zutela:

«Estatu Batuetako zerbitzu sekretuek eta Alemaniako sozialdemokraziak Espainiako Trantsizioaren zuzendaritza txandakatu zuten, arreta handiz, bi helbururekin: Francoren heriotzaren ondoren iraultza eragozte eta ezker komunista deuseztatzea. “Ezkerreko” alderdi bat eraikitze lan fin hori, hain zuzen ere ezkerak Espainian boterea eskuratzea eragozteko, CIAren lana da, Internacional Sozialistarekin lankidetzan. Operazio luze horren lehen diseinua hirurogeiko hamarkadan du jatorria, orduan erregimena amore ematen hasia baitzen, ezinbestean, langileen borrokan eta herri-aldarrikapenen presiopean. PCEn hazkunde ikusgarriak eta Gerra Zibilaren aurreko sindikatu eta alderdien desagertzea, batez ere UGTrenak eta PSOErenak, frankismoaren amaieran komunismoa gailentzeko beldurra eragin zuten».

Eta dokumentazio ugari gehitzen da lotura horien froga gisa. PSOEko sektore kritiko baztertu-ko Joan Garcések berak Carlos Zayas aipatzen du, PSOE berriaren lehen hautagaitzako kidea, eta honako hau dio:

“[Zayasek] maiz igortzen zion informazioa [AEBko] Enbaxadari sentsibilitate sozialistako pertsonen buruz, zeinak, babes materiala jasoz gero, Alderdi Komunistaren aurka borrokatzea batu baitzitezkeen. Zayasek, besteak beste, Joan Raventós Carner (Bartzelona), José Federico de Carvajal eta Mariano Rubio aipatu zituen, eta, aldi berean, Federico Sánchez Madrilgo Alderdi Komunistako agente nagusi zela jakinarazi zien”.

Trantsizioak aurrera egin ahala, adostasun estatubatuar-alemaniar hori areagotuz joan zen. Hona hemen adibide batzuk: UGTk AEBko “sindikatu hori” deiturikoengandik 200 milioi pezeta jaso zituen; SPDren Ebert Stiftung fundazioaren bidez PSOErengana eta Portugalgo PSrengana CIAren dirua ibili zen; edota Kissingerrek eta Helmut Schmidtek





babesa eman zuten PSOE Batzorde Demokratikoan sar ez zedin. Zerrenda amaigabea da, eta PSOE-SPD-CIA sarea zabala bezain agerikoa zen. Grimaldosen liburuaz gain, beste mila liburu eta testu daude lankidetzaz horri eta komunismoaren aurkako asmoari buruzko froga amaigabeak jasotzen dituztenak –ez bakarrik PCEn aurka, laster integrazio-bidean sartu baitzen, baina bai nagusiki–.

Sare horren espirituaren sintesi gisa dugu José Mario Armero AEBko kapital handien abokatua-
ren aipua, baita Espainiako Estatuarekin izan zuen lotura ere. Besteak beste, ezaguna da urte haietan Carrillorekin elkarriketatutako zelako PCEn legeztatzea bideratzeko, Estatuan integratzeko baldintzapean. Honela dio:

“Errealitateak erakusten du gaur egun Espainian alderdi sozialdemokrata, europarra, mendeabalzalea, proestatubatuarra eta atlantista dagoela agintean. Urte bateko gobernuan, PSOEko gizonek zeregin zinez berezia bete dute: Espainiako ezker tradizionalaren ia suntsipen totala, hein handi batean marxista eta iraultzailea, buruzagi sozialista gazteek hartu dituzten bide berrietatik oso bestelako tradizioari jarraitzen ziona. Egia esan, ez dute zerikusirik Pablo Iglesiasekin, ez Francisco Largo Caballeroekin, ezta Rodolfo Llopisekin ere. Eta beti ezkertzat hartu izan dena sozialdemokrazia bategatik ordezkatzeari lortu dute, zeinaren proposamenean enpresa askea, jabetza pribatua, europarrak, iparramerikarrak eta NATO sartzen diren”.

Zentro inperialistako kide izatearen pribilegioez gozatu eta irabazien zati bat jasotzeko (nazioartekotzea, finantzaketarako sarbidea, patente-sistema, zirkulazio askea...), erantzukizunak bere gain hartu eta Washingtonek zuzendutako gerra-makineriari ekarpena egin behar zitzaion

Hain zuzen ere, NATOn integratzea izan zen Espainiako Estatu Mendebaldeko inperialismoan integratzeko funtsezko zutabeetako bat. NATOn sartzeko prozesuak ibilbide luzea zuen: Calvo Soteloren gobernuan hasi zen, PSOE aurrez aurre aurka zegoenean. Izan ere, “NATOn sarrerari ez” leloarekin batera, PSOEk Aliantza Atlantikoan jarraitzeari buruzko erreferenduma egiteko konpromisoa hartu zuen.


Dena aldatu zen Gobernura iristean, eta agerian geratu zen aurreko protestak hauteskundeei begirako paper erreka baino ez zirela. Azken finean, aliantza militarrekiko atxikimendua Gonzalezek beste gobernu batzuetatik EEn integratzeko bildu zituen laguntzekin lotu zen, zalantzarik gabe. Horrela, zentro inperialistako kide izatearen pribilegioez gozatu eta irabazien zati bat jaso nahi izanez gero (nazioartekotzea, finantzaketarako sarbidea, patente-sistema, zirkulazio askea...), erantzukizunak bere gain hartu eta Washingtonek zuzendutako gerra-makineriari ekarpena egin behar zitzaion. Adibide gisa, Köhl demokristauak Espainiako Estatu EEn onartzeari buruz izan zuen jarrera-aldaketa Felipe Gonzalezek Mendebaldeko Alemanian jarri behar ziren “euromisilen” alde egindako adierazpenaren eskutik etorri zen –sinbolikoki baten ere–. Izan ere, Mitterrandek Espainia EEn sartzeari defendatu zuen, NATOn jarraitzeko berme gisa. Arestian azaldu den bezala, PSOEk bere gain hartu zuen Estatu kapitalistaren boterearen erantzukizuna, eta mendebaldeko blokean integratzea aukerarik onena zen Espainiako kapital handiarentzat. Garai haietan, beraz, ez zegoen benetako eztabaidarik eman beharrik, itxurakeria baino ez.

Eta horrela, EEn sartzeko hautagaitza arriskuan ez jartzeaz baliatuta, alderdiko eta Gobernuko goi-kargadunak jarrera aldatzen hasi ziren, lehenik

iritzi anbiguo batera, eta ondoren NATOn alde. Hamar urte eskas lehenago bere burua antinperialistatzat aurkezten zuen alderdiaz ari gara! Luis Solanak berak alienaziorik eza defendatzen zuen Gerra Hotzean eta atlantismoa gaitzesten zuen. Hala ere, jakina, aldaketa hori ez zen erraz gauzatu, eta zuzendaritzak 1984ko XXX. Kongresuan bere militanteen aurka egin zuen. Askoz ere gogorragoa izan zen kaleko erantzuna, bereziki mugimendu eta erakunde independenteen aldetik, hala nola Herri Batasuna. Horrek behartu egin zuen Gobernua agindutako erreferendumera deitzera.

Bere irudi gazte, errebelde eta idealistaren, eta estatu-konpromisoen politika pragmatikoaren artean oreka mantendu ahal izateko, Gonzalezek eta bere ganberak kanpaina oldarkorra aukeratu zuten. Ezetzaren balizko garaipen baterako panorama katastrofiko bat irudikatzeko karta jokatu zuten, baita Gobernuan botere-hutsune bat iradokitzekoa ere kasu horretan; hau da, XXVIII. Kongresuan erabili zen karta bera jokatu zuten. EAJren, CiUren eta beste batzuen ezinbesteko babesak ere ezin da alde batera utzi. Azkenean, PSOEn oposizio osoa hari atxikitzea zaila zen akordio batean geratu zen. Gainera, akordio horrek ez zuen ezertarako balio izan, izan ere, 1997an Aznar gainera pasatu, eta aliantzaren egitura militar integratura atxikitzea erabaki zuen.

Klaudikazio politikoaren nahitaezko kontrako alderdia amore eman ez zutenen aurkako errepresioa izan zen. NATOn aurkako borrokan bezala, PSOEk etengabe egin zion aurre bere eskizofrenia propioari; batetik, Espainia zaharrari aurre eginez gazte berritzaileen balentriari buruzko kontakizuna baitzeukan, eta, bestetik, estatuko eta nazioarteko enpresa-zirkuluekin zituen benetako konpromiso politikoak.

A photograph of a man in a military uniform, smiling and holding a sign. The sign has the word 'Gobernador' at the top and 'FELIPE' in large, bold letters below it. The background is dark and out of focus.

Gobernador
FELIPE

*Lehen gobernu sozialistak, hain
denbora laburrean, frankismo
zaharrak aspalditik nahi zuen
lankidetza lortu izanak argi
erakusten du PSOEk ordezkaturako
proiektu berria eraginkorragoa
zela errepresioari dagokionez
ere, mendealdeko blokean
integratzeari dagokionez
erakutsi zuen bezala*



Likidazio ideologikoak eta Espainiako Estatu kapitalistaren helburuak alderdiaren programa bihurtzeak laburbiltzen du Trantsizioko PSOEren eraketa-espirtua. Estatu berri zaharra ordezkatzeko PSOE berria

Gonzalezek agintea hartu zuenetik bi urte eskas igaro zirenean, Jose Barrionuevo Barne ministroak akordio bat sinatu zuen bere homologo Gaston Deferre Frantziako Barne ministroarekin, Ipar Euskal Herrian errefuxiatutako militanteak jazartzeko. 1984ko “Castellanako akordio” horiek arrakasta handia izan zuten PSOEkin lortutako integrazioan. Lehen gobernu sozialistak, hain denbora laburrean, frankismo zaharrak aspalditik nahi zuen lankidetzat lortu izanak argi erakusten du PSOEkin ordezkaturako proiektu berria eraginkorragoa zela erreprezioari dagokionez ere, mendebaldeko blokean integrazeari dagokionez erakutsi zuen bezala. Horrela, nazioarteko sozialdemokraziaren elkarlanaren bidez –Gonzalezek PSOEren egilea–, Euskal Herrian ENAM, eta baita beste lurralde batzuetan ere, irauten zuen haustura-mugimendu politiko oso aktiboa zapaltzeko tresna desiratuak lortu ziren. Izan ere, Frantziako kontserbadoreek 1986an lortutako garaipenaren ondoren, akordioa mantendu eta zabaltzen joan zen. PSOEkin, azken batean, Espainiako estatu kapitalistaren modernizazioa gorpuztu zuen.

Era berean, Estatu konstituzionalaren sorreratik bertatik sortu zen oinarritzko eskubideak eteteko ustezko salbuespena. Iparraldeko Eremu Berezia (ZEN) 1983an, 9/1984 Lege Organikoa, Zigor Kodean apologia-delituak sartzea... Hala, salbuespenezko neurriak errutinazko bihurtu ziren: kontrol indiskriminatuak, etxebizitza eta intimitatea urratzea, kontrol judiziala saihestea, poliziaren inbasioa Hego Euskal Herrian, tortura eta abar luze bat.

Mugimendu haren likidazio-planaren koroa, zalantzarik gabe, GAL izan zen. Erakunde eta militantzia iraultzaile konprometituen mugimenduak Estatu zaharraren josturak ikusarazten zituen eta, era berean, agerian uzten zuen PSOEren diskurtsoen eta fraseologiaren hutsunea, eta mugimendu horrek helburu zuen bere burua ezkerrik nagusie-


na bezala aurkeztea: NATOren, Poliziaren eta Armadaren aurkako kanpainak; langileen borroken babesa; autodeterminazio eskubidea... Hori guztia Estatuaren jomugan zegoen, bake soziala edo, gutxienez, gatazka maila onargarria behar baitzuen. Beharrezkoa zen oposizio antifrankista Estatuan integratzea, Carrilloren PCRekin lortuko zen bezala. Hala ere, ENAMekin eta beste batzuekin hori ez zen posible izan, eta PSOEkin militanteak zuzenean hiltzea gehitu zien aipaturako neurri guztiei. Sarraski hori, Iparraldeko errefuxiatuetan ardaturik, Estatuako polizia eta militarrek egin zuten zuzenean, funts erreserbatuen bidez finantzatuta eta PSOEren direktibaren zuzeneko agindupean.

Amaigabea izango litzateke PSOEkin, inoiz baino hobeto esanda, Estatu alderdiaren papera betetzeko hartu zituen konpromiso guzti-guztiak zerrendatzea eta are gehiago azaltzea. Autodeterminazio eskubideari uko egitea eta, ondorioz, autonomien Estatu nazio zapalkuntzari eusteko programa propio gisa kontsaktatzea, etorkizun federaletik urrun zegoen promesari jarraiki, Estatu berriaren eraikuntzaren beste funtsezko zutabee-tako bat izan zen. Nolanahi ere, likidazio ideologikoak eta Espainiako Estatu kapitalistaren helburuak alderdiaren programa bihurtzeak laburbiltzen du Trantsizioko PSOEren eraketa-espirtua. Estatu berri zaharra ordezkatzeko PSOE berria. ●



EZER EZ DA ALDATZEN

Gaurkoan, PSOE izango dut hizpide, Espainiako Estatuaren modernizazio prozesuko aktore nagusia eta 78ko erregimenaren zutabea, agente baketzailea eta kudeatzailea klase-gatazkak areagotzen diren uneetan. PSOE giltzarria izan da Espainiako erregimen burgesean: Zapateroren agintaldian 2008aren hurrengo urteetan, Pedro Sánchezekin pandemian bake soziala ziurtatu nahian, Kataluniako gatazkan, DANAn, itzalaldian eta alderdiaren barruko ustelkerian. Hori dela eta, erreportaje honen helburua da alderdiaren azken urteen analisia egitea, eta aztertzea nola kudeatu dituen gatazkak eta nola konfiguratu dituen bere aliantzak eta babesak; haatik, hauteskundeetako analisitik eta analisi soziologikotik harago joan nahi nuke, haren atzean dauden klase interesak argitara ateratzeko helburuz.



NOLA IRITSI GARA HONAINO?

Inflexio une gisa ikusten dute askok 2008ko krisia, bai munduan, baita estatuan eta estatuen barreneko lurraldeetan ere. Bizi garen gizarte honen egiazko aurpegia erakutsi zuten zenbait gertakarik, adibidez krak finantzarioak, ondoren bankuak salbatu izana Estatuak, pobrezia handitu izanak eta etxegabetzeen eta enbargoen gorakadak. Horiek guztiek, beste behin ere, agerian utzi zuten gobernatzaileek nolako arazoak dituzten krisian dagoen gizarte bat kudeatzeko. Ezintasun horren eraginez, gainbehera egin zuten Europako alderdi sozialdemokrata klasikoei, hala nola Greziako PASOK eta Frantziako PS alderdiei, eta, aldi berean, eite populistako alderdiak sortu ziren, besteak beste La France Insoumise, Syriza eta Podemos. 6 milioi langabetu eta 12 milioi lagun bazterketa sozialean eta pobrezia-arriskuan egoteak, normala denez, haserre handia eragin zuen gizartean. Europako eta estatuko instituzioen kontrako haserrearen zen, eta, zehazki, Zapateroren PSOEn kontrakoa, krisiaren kudeatzailea zen aldetik. Espainiako Estatuan, haserre hori eta haren adierazpenak M-15aren forma hartu zuten. Borroka-ziklo luze hark askotariko adierazpenak izan zituen: greba orokorrak 2010 eta 2012 urteen artean, *haserre*tuak plazak hartzen, “Inguratu Kongresua” ekimena 2012an eta Duintasunaren Martxak 2014an, besteak beste.


Ordea, haserre horren muina ez zen neurri ekonomikoei eta pobretze orokortuari uko egitearen forma bat bakarrik; aitzitik, haren bidez, gaur egungo Estatuaren formari, alegia, 78ko erregimenei Estatuaren formari egiten zitzaion uko. Hori “ordezkaritza krisi” edo “bipartidismoaren krisi” deitzen da: 2 alderdi tradizionalak ez dira gai gizarterko geruza zabalen eskaerak ordezkatu eta bideratzeko, ezta belaunaldi gazteetan ikusten den haserre sozial handiari erantzuteko ere.

Haserre horren emaitza gisa, indar politiko berriak sortu ziren, izan mugimendu sozialen forman (etxebizitza, feminismoa, ekologismoa...), izan alderdi politikoen forman. Bigarren horietan, Podemos (2014) da adierazle nagusia. Indar horiek, era batera edo bestera, PSOEn ezkerreko espazioa lortzeko norgehiagokan zeuden, ea nork apurtuko hamar urteko hegemonia hori. Aldi berean, krisi politiko horrek adierazpen propioa izan zuen Kataluniako *procés*ean (2017), gobernuko alderdiei erronka ikaragarria ekarri baitzuen prozesu horrek ekarri zuen independentismoaren gorakadak.

Asaldurazko testuinguru hartan azaldu zen azken urteetako Espainiako politikaren protagonista nagusietako bat, Pedro Sánchez. 2014ko Europako hauteskundeetan lortutako emaitza kaskarrengatik Rubalcabak dimisioa aurkeztu ondoren, egungo presidentea aukeratu zuten haren ondorengo gisa, militantziaren boto zuzenaren bidez. Gero, ordea, zalantzan jarri zen Sánchezen lidergoa, ikusita 2015ean emaitza negargarriak izan zituela PSOEk –20 eserleku eta 1.500.000 boto galdu zituen–, haren inbestidurak porrot egin zuela, eta 2016an berriz ere emaitza txarrak zituela –nahiz eta errekuiperatu zituen galdutako boto batzuk–. Horren adibide dira nolako barne xextrak izan zituen alderdiaren beste sektorearekin, hau da, Susana Díazez gidatu eta Felipe Gonzálezek babesturikoarekin. Borroka horiek gaindituta, Sánchez berriz aukeratu zuten alderdiko presidente gisa, eta horrek alderdiko kohesioa handitu zuen haren figurari dagokionez, eta oposizioko kideena ahuldu. Sánchezek kargua hartu zuenean, helburu zuen bere alderdiarekiko konfiantza berritzea eta aurre egitea egoera ekonomiko kaskartuari, botoen jaitziera nabarmenari, ezkerreko alderdien gorakadari eta Kataluniako gatazkaren ondorioei. Besteen meritutik faltak edo berak egindako merituek eraginda –ziurrenik biek eraginda–, PSOE gai izan da testuinguru berri horretara behar bezala egokitzeko eta ezker parlamentarioko erreferente nagusi izatera bueltatzeko.

Azken urteotan hainbeste gorabehera gertatu izanak zaildu egiten du analisia; beraz, kronologikoki ordenatutako taula batean jarri ditut sanchismoaren garaiko gertakari nagusiak, aipatutakoa sekuentzializatu eta hobeto uler dadin (ziurrenik ahaztuko zitzaidan baten bat). Erreportajea 3 bloke nagusitan bereizi dut, hain justu nire ustez sanchismoaren 3 helduleku nagusi diren horietan: PSOEn ezkerreko espazioaren subordinazioa; “independentismoaren” laguntza; eta eskuin muturrari galga jarri, eta aldi berean, kohesio sozialeko neurriak hartu izana.

URTEA	GERTAKARIA
2017ko maiatza	Pedro Sánchez berriz hautatu izana hauteskunde primarioetan
2017ko urria	Kataluniako erreferenduma
2018ko ekaina	M. Rajoyren kontrako zentsura-mozioa eta P. Sánchez presidente bihurtzea
2019ko apirila	Hauteskunde orokorrak eta PSOEren garaipena
2019ko iraila	Más País alderdiaren sorrera
2019ko urria	Procésaren epaia (tentsioak ERCrekin)
2019ko azaroa	Hauteskundeak berriz egin eta PSOEren garaipena
2020ko urtarrila	Koalizio gobernua eratzea Unidas Podemosekin
2020ko martxoa	Covid-19aren ondoriozko alarma-egoera aplikatzea
2021eko ekaina	Indultu partzialak procésako kondenatuei
2022ko otsaila	Errusiaren eraso Ukrainari
2022ko martxoa	Espainiak babesa ematea Marokok Mendebaldeko Sahararako proposatutako autonomia-planari
2022ko urria	“Soilik bai da bai” legea indarrean sartzea
2023ko maiatza	Sumar alderdiaren sorrera
2023ko uztaila	Hauteskunde orokorrak; PPK irabazi zituen, baina ez zuen babesik lortu
2023ko urria	Palestinako gatazka areagotzea
2023ko azaroa	P. Sánchezen inbestidura. Hauek bozkatu zuten alde: PSOE, Sumar, ERC, Junts, EH Bildu, EAJ eta BNG
2024ko otsaila	Koldo/Ábalos kasuaren eztanda Amnistia legea onetsi
2024ko urria	DANA
2025eko apirila	Itzalaldia



***Podemosen proposamen politiko populistaren
kausak ziren, alde batetik, PSOEn proposamen
sozialiberalaren krisia, eta, beste alde batetik,
bizi baldintzak kaskartu izana, eta, egoera
horretan, pobretze horri oztopoak jarri behar
izatea langile aristokraziak eta burgesia txikiak***

SANCHISMOA ETA EZKERRAREN FAGOZITAZIOA/DESAKTIBAZIOA

PSOEk gizarte- eta hauteskunde-testuinguru berrira egokitzeko izan duen fase gisa ikus daiteke Zapateroren ondorengo garaia. Ezkerraren hegemonia lortzeko norgehiagokaren testuinguru batera egokitu beharra izan zen alderdiaren estrategia berriaren elementu nagusietako bat.


2008ko krisiak eta haren ondorioek Podemos alderdi berrian izan zuten adierazlerik gorenak. Proposamen politiko populista horren kausak ziren, alde batetik, PSOEren proposamen sozioliberalaren krisia, eta, beste alde batetik, bizi baldintzak kaskartu izana, eta, egoera horretan, pobretze horri oztopoak jarri behar izatea langile aristokraziak eta burgesia txikiak. Ortzi muga estrategikorik eta haserre hori artikulatzeko antolakunderik ez egotearen ondorioz M-15 mugimendua ahultzen hasia zenean sartu zen Podemos espektro politikoan. Aldaketa-deiadarrez beterik etorri zen, politika tradizionalarekin identifikatzen ez ziren pertsona horiek guztiak ordezkatzera, establishmentaren kontrako diskurtso nabarmenarekin, bai eta proposamen “hausturazale” batzuekin ere; ez zituzten langile klasea eta sozialismoa aipatzen, “herriari” zuzentzen zitzaizkien, herritarrei, behekoei, erdiko klasekoei. Hori da azkeneko hamarkadetakoa politikak hartu duen forma populistaren elementu giltzarrietako bat; alderdi guztietan du eragina, baina batzuetan modu zuzenagoan ikusten da. Hastapen “erradikal” haietan, Podemosek herri mugimendu osoaren ordezkari gisa aurkeztu nahi izan zuen bere burua, eta mugimendu sozial horien aldarrikapen batzuk sartu zituen programan, bai eta bere lerroetan espazio horietako erreferente batzuk ere. Alderdiaren eta mugimenduen arteko harreman hori gero eta konplexuago eta arazotsuago bilakatu zen pixkanaka, nagusiki promes eder haiek gauzatzeko ezintasunaren eta pertsonalismoetan oinarritutako egitura hierarkikoaren eraginez.

Bitartean, PSOE testuinguru berrira egokitzen eta bere posizioa errekupeatzeko estrategia berri bat ari zen sortzen. Hasieran, Podemosen diskurtsoaren konfrontazio zuzenera eta deslegitimazioa jo zuten. Horren adibide dira Pedro Sánchezek 2014an esandako hitzok: “PSOEk ez du ez pakturik egin populismoarekin, eta ezta egingo ere”. Ordea, ez zuten argi nola egin aurre hauteskunde norgehiagokari: batzuen ustez, lehentasuna eman behar zitzaion ezkerreko hegemonia lortzeari, eta Podemos garaitu (Sánchez), eta beste batzuen ustez, berriz, posizio zentrista indartu behar zen, eta PP garaitu, gobernatzeko helburuz (Díaz). Baina bo-

toen ihesaren eta 2015eko eta 2016ko hauteskundeetan gobernu osatu ezinaren eraginez, zenbait barne zatiketa sortu ziren, eta zalantzan jartzen hasi zen Sánchezen lidergoa. 2015ean, PSOEk hogeiei eserleku galdu zituen (90 lortu zituen), eta Podemosek, aldiz, 69 eskuratu zituen, hau da, 400.000 botoko diferentzia baino txikiagoa ateratzen zion PSOEri. Hauteskunde haietan, PSOEren boto emaileen %26,2k Podemosen eta Iuren aldeko botoa eman zuten, eta %6,6k, berriz, ez zuten botorik eman edo boto zuria eman zuten. Urtebete geroago, PSOEren boto emaileen fideltasuna %77,4ra igo zen, baina boto emaileen %4,7k Unidas Podemosi eman zion botoa, eta abstenitu egin zen beste %10. Beraz, hauteskunde-emaizta orokor kaskarrak zituen, oraindik ere.

Zenbait hilabetez tentsioak, seinalamenduak eta norgehiagokak izan ondoren, liderra aukeratzeko unea iritsi zen. Sánchez berriz aukeratu eta alderdia birkonfiguratu izanak PSOE berritzeko oinarriak ezarri zituen, eta, horren ondorioz, idazkari nagusi berriaren lidergoa indartu zen, eta posizio giltzarrietan jarri zituzten haren hurbileko profilak.

2018an, ustelkeria kasuek ahuldurik, PP gobernutik kanporatzeko eta eskuin muturraren gorakadaren aurrean bere burua alternatiba erreala gisa aurkezteko parada ikusi zuen PSOEk. Mozioak arrakasta izan zuen, eta, oinarriak ezarri zituzten PSOEri babesa emango zioten alderdiei: ezker “erradikalari” eta “independentistei” (hurrengo orrialdeko irudian ikusten den moduan). Babes horiek ulertzeko, ezinbestean hartu behar da kontuan alderdi sozialistaren estrategiaren zutabe nagusia: alternatiba bakarra izatea PPK eta VOXek osaturiko balizko gobernu baten aurrean, eta boto erabilgarriaren ordezkari bihurtzea.

Alderdien posizioa 2018an Mariano Rajoyren kontrako zentsura-mozioaren aurrean


Ezkerraren zatiketak zaildu egin zuen gobernu egonkorra osatzea, eta, beraz, PSOEek alderdi gehiagorekin egin behar izan zituen akordioak. Testuinguru horretan, gobernatzen saiatzea edo Ciudadanosen babesa jasotzea izan zen PSOEren lehenbiziko aukera 2019ko hauteskunderen ondoren, baina ez zuen arrakastarik izan. 2019aren bukaeran hauteskundeak berriz egin zirenean, PSOEek UPri zenbait postu eman beste erremediorik ez zuen izan, eta koalizio gobernuak Ministroen Kontseiluan sartu zituen Pablo Iglesias, Yolanda Díaz, Irene Montero, Alberto Garzón eta Manuel Castells. Nahiz eta ez zen PSOEren aukerarik gustukoena izan, UP gobernuan sartzea aukera ona izan zitekeen dena aldatzera zetorrela esaten zuen alderdi hura ahultzen jarraitzeko; izan ere, ikusi den moduan, gobernuan egoteak higadura eragiten du hauteskunde emaitzetan, eta are gehiago UPren ezaugarriak dituen alderdi batean. Higadura hori agerikoa zen; horren adibide izan zen urte horretan bertan Más País zatiketa sortu izana, Íñigo Errejón buru. PSOEek gauza bakarra egin behar zuen: estrategia propioak (edo estrategia faltak) hauteskunde beharakada eragiten zion alderdi bat higatu. Taula honek higadura hori erakusten du:

Koalizio-gobernuaren garaiak higadura izugarria eragin zion Podemosi, eta haren barreneko gero eta ahots gehiago hasi ziren eskatzen alderdi berritzeko. 2023an, aurreneko Podemos haren liderrek alderdia utzi ondoren, Sumar sortu zuen Yolanda Díazek. Beste behin ere, bete egin zen ezker banatu eta ahuldu egiten den ideia hori, eta horrek desilusio handia sortu zuen, bai eta alderdiarekiko atxikimendu falta handitu ere, ordurako nahiko handia zen arren.


PSOEri ezker “erradikalak” eta “independentistek” emandako babesa ulertzeko, ezinbestean hartu behar da kontuan alderdi sozialistaren strategiaren zutabe nagusia: alternatiba bakarra izatea PPk eta VOXek osaturiko balizko gobernu baten aurrean, eta boto erabilgarriaren ordezkari bihurtzea

HAUTESKUNDEAK	URTEA	BOTOEN % (HURBILDUA)
Europakoak	2014	%7,98
Espainiako orokorrak	2015	%20,7
Espainiako orokorrak	2016	%21,1 (Unidas Podemos)
Espainiako orokorrak (apirila)	2019	%14,31 (Unidas Podemos)
Espainiako orokorrak (azaroa)	2019	%12,97 (Unidas Podemos)
Europakoak	2019	%10,17 (Cambiar Europa)
Espainiako orokorrak	2023	%12,33 (Sumar)
Europakoak	2024	%3,3 (Podemos)


Hori horrela, interesgarria da aztertzea zer sektorek babestu dituzten ezkerreko alderdiak azken hauteskundeetan. Horretarako, CISek (Espainiako Ikerketa Soziologikoen Zentroa) 2023ko hauteskundeak baino lehen egin zuen inkesta aztertu dut, zeinak kanpoan uzten baitu UP. Agerikoa da inkesta horiek ez direla termino marxistetan egiten, eta esan gabe doa tentuz aztertzeak direla, baina uste dut analisirako elementu interesgarriak dakartzatela hala ere.

Boto emaileak adinaren arabera aztertzen baditugu, ikusiko dugu gazteen artean PSOE dela alderdi nagusia, baina Sumarrek gertutik jarraitzen diola. Adinean aurrera egin ahala, Sánchezen alderdiak koska handiagoa irabazten dio Díázenari, bigarren horren hauteskunde-oinarria gazte sektoreetan eta hurbilekoetan baitago errotuta, argi eta garbi. PSOErena, aldiz, sektore tradizionalagoetan da indartsuagoa, hau da, diktadura eta trantsizioa bizi zituzten haien artean.


Alderdien bozkak adinaren arabera




Alderdien bozkak ikasketa mailaren arabera



Alderdien bozkak klase sozialaren arabera



Herrialde askotan ari da gertatzen ezkerrek langile “klasikoen” alderdi izateari uztearen eta ikasketa-maila altua duten sektoreetan indartzearen fenomeno hori (adibidez Alderdi Demokratarekin AEBn)



Bi grafiko horietan botoaren aukeraketa ikus dezakegu bi aldagairen arabera: boto emaileek zein klase sozialetan kokatzen duten beren burua eta haien ikasketa-maila. Argi ikusten da gobernuan dagoen alderdia hezkuntza-maila baxuko sektoreek elikatzen dutela neurri handi batean, eta, gehienbat pobretzat dutela beren burua. Zenbat eta hezkuntza-maila altuagoa izan boto emaileek, orduan eta babes txikiagoa jasotzen du alderdi sozialistak, eta justu kontrakoa gertatzen zaio Sumarri. Herrialde askotan ari da gertatzen ezkerrek langile “klasikoak” alderdi izateari uztearen eta ikasketa-maila altua duten sektoreetan indartzearen fenomeno hori (adibidez Alderdi Demokratarekin AEBn). Badi-rudi PSOEek oraindik eutsi egiten diola langile klase “klasikoari” lotutako hauteskunde nitxo horri.

Baina datu horietan gelditzen bagara, errealitatearen irudi oso desitxuratua emango dugu, hau da, aditzera eman daiteke PSOE delako langile klasearen hautua. Ordea, hauteskunderik hauteskunde ikusten dugu gizartearen geruza ugari ez dutela botorik eman, bereziki gaitasun ekonomiko txikiak duten horiek. Garrantzitsua da seinatzea ezen, sektore bat politika instituzionalarekin identifikatuta sentitzen ez den era berean, gaitasun ekonomiko handiagoa duten beste sektore batzuk mobilizatzen ari direla beren estatusari eusteko, adibidez langile aristokraziaren sektoreak (funtzionarioak, kasu). Politika instituzionalarekiko desatxikimendua nahiko agerikoa da ezkerreko sektoreetan, baina ez da ahaztu behar elementu mobilizatzaila ari dela izaten PP eta VOXek elkarrekin balizko gobernu bat eratu dezaketelako ideia; hori ikusten da, adibidez, 2023ko hauteskundeetan, non parte-hartzea 4 puntu igo baitzen 2019ko hauteskundeetan aldean. Desatxikimendu horren kausa, neurri handi batean, promesak betetzeko ezintasuna da, eta, beste neurri batean, promesak gauzatzeko anbizio eta auserdia falta. Horrek ateak irekitzen dizkie VOX eta antzeko alternatiba erreakzionarioei. Horrez gain, kontuan hartzekoak dira azken urteetan ikusten ari garen norgehiagoka pertsonalistak.

Garai aldaketa gisa ikusi zen Podemosen eta Sumarren arteko haustura, 2014an ireki zen ezkerreko espazio horren inplosio gisa

Garai aldaketa gisa ikusi zen Podemosen eta Sumarren arteko haustura, 2014an ireki zen ezkerreko espazio horren inplosio gisa. Alderdi moreak, 2023ko uztailako hauteskundeetan Sumarrekin aurkeztu ondoren, 5 hilabeteren ondoren utzi zuen koalizioa (hamabost bat erakundek osatua), eta talde mistora igaro zen, 5 eserlekurekin. Eztan da egin zuen 2015ean 5 milioi boto baino gehiago lortu zituen alderdi hark (2023an 3 milioi boto). Esan daiteke PSOEek ondo asmatu duela bere estrategian, lortu duela ezkerreko erreferente nagusi izaten (egungo testuinguruaren aldaketan barruan, jakina), duela urte batzuk erraza ez zirudien arren. Prozesu hori erraztu egin du Podemosen etengabe-ko higadurak, alde batetik printzipio politiko komun irmorik ez izateak eragindakoa, eta beste alde batetik lider pertsonaletan oinarritutako politika egiteak –adibidez Pablo Iglesiasen, Íñigo Errejónen eta Yolanda Díazen figuretan oinarritutako politika-. PSOEek, beste alderdi baten sorpassoa saihes-tu ondoren, testuinguru berri honetan gobernatzea errazten dion makulu bat lortu du.

PSOE ETA “INDEPENDENTISMOA”

Katalunia procésaren ondoren


Herrialde Katalanetara joan nintzen erreferendumaren aurretik; dena zen ilusio eta garaipenaren zapore. Ezinezkoa zirudien estatuak aktibismo eta mobilizazio hura guztia desaktibatzea, baina, urte batzuk geroago, ez da geratzen behinola izan zen haren itzala baino. Hain justu, PSOE dago desaktibazio eta asimilazio horren erantzuleen artean, eta ondo asmatu du bulkada hori kontzesio, klaudikazio eta konpetentzien forman bideratzen. Jakina, ez da ahaztu behar alderdi “independentistek” eta haien estrategia faltak duten erantzukizuna. Azkenean, gelditu den bakarra zera da: politikariak beren interes partidistekin salerosketan aritzen diren mahai bat, jendearen bizkarretara jarduten duena.

Mariano Rajoyk errepresioan oinarrituz kudeatu zuen gatazka hura; Sánchezek aldatu egin du hori, baina ez erabat. Gobernu zentralak, normaltasun politikoa berrezarri eta PSOE indartzeko neurri gisa, indultu partzial bat, Zigor Kodeko sedizio delitua indargabetzea eta Amnistiaren Legea sustatu ditu. Hala ere, uste dut errepresioak alderdi batzuen irudia indartu duela, batez ere Juntsena (Puigdemont), irudi hausturazalea eman baitio, eta horrek aukera eman baitio hauteskundeei dagokieenez hazteko. Hala ere, Salvador Illak atera du atarramenturik onena.

Procésaren ondoreneneko elementurik nabarmenenetakoa izan da jendeak desatxikimendua sentitu duela alderdiekin, sentitu baitute ez direla gai aurrerapen erreala egiteko; desatxikimendu hori ongi ikusten da hauteskundeetako parte-hartzearen beherakadan (abstentzioan eta botoaren dispersioan). Halaber, nabarmentzekoa da bloke independentistak izan duen haustura, estrategia faltak eta norgehiagoka partidistek eragindakoa. Ez da ahaztu behar CUPen beherakada ere, 2021ean 9 eserleku izatetik 2024an 4 izatera igaro baitzen, 60.000 boto baino gehiago galduta. Argi gelditu da procésak ez duela eginga zuen promesik bete, eta, indartu beharrean ahuldu egin dituela proiektu hausturazaleak. Lezio esanguratsuagoak lortzeko, alabaina, sakonago aztertu beharko litzateke hori. Ordenaren, baretasunaren eta legearen aldeko jarreran asimilatu da procésak sortutako euforia guztia. Horren guztiaren ondorioa finantzazio sistema berezi bat egiteko akordio bat izan da (2025eko uztaila), non Generalitatak lege gaitasun handiagoa izango duen zergak kudeatzeko. Kataluniako burgesiak lortu du gobernuaren mahai berean esertzea, eta, mahai horretan, mekanismo instituzionalak lortu nahian dabil mundu ordena gero eta konplexuago batean posizio hobea izateko.



Botoen bilakaera Katalunian (2012-2024)



Ordenaren, baretasunaren eta legearen aldeko jarreran asimilatu da procésak sortutako euforia guztia

EH Bildu-EAJ: morroi izateko norgehiagoka

Herrialde Katalanetatik harago, Euskal Herrian bi alderdi handien arteko norgehiagoka ireki da, ea nork lortzen duen eskumen eta diru gehien transferitzea EAEko instituzioetara. EH Bilduk EAJren estrategia berari jarraitu dio (estatutuaren eta eskumen gehiago eskuratzearen aldekoa), eta hori lagungarri izan zaio gobernuari, aurrekontuak eta legeak onesteari dagokionez. PSOErrentzat eragile garrantzitsu bihurtu dira alderdi horiek, gobernu zentralari babesa eta egonkortasuna ematen diote, eta, trukean, transferentzia eta inbertsioak jasotzen dituzte autonomia-erkidegoentzat.

EAJ da oraindik ere PSOEn lehentasunezko bazkidea, izan autonomia-erkidegoetan, izan estatuan. Jeltzaleekin sortzen dituzte transferentziak (espetxeak, gizarte segurantzak, trenbideak, tituluak, Ertzaintza eta abar) eta inbertsioak kudeatzeko batzorde teknikoak. EH Bildu, berriz, gobernua iristeko estrategiaren barruan, irudia aldatzen saiatzen ari da, ordenaren eta kudeaketaren alderdi bihurtuz. Boto erabilgarriaren eta "gutxienik txarrenaren" logikaren barruan, EH Bilduk Sánchezen

governua babestu du, hura eskuinaren kontrako balazta gisa hartuta. Emaizta gisa, indarra hartu du lege batzuk onesteari dagokionez; datu batzuen arabera, gobernuaren 80 ekimen babestu zituen 2019 eta 2023 urteen artean, tartean Etxebizitzaren Legea, pentsioen erreforma, Lanbidearte Gutxieneko Soldata eta memoria demokratikoari buruzko legea. Gobernuak nolabaiteko agenda soziala eman dio Bilduri hitzezko itun batzuen bidez, baina aldebiko egiturarik gabe. Gobernuaren eta EH Bilduren arteko harremana aldakorra da, eta argi dago gero eta gehiago negoziatzen dutela ezkutuan, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalera babesa ematean, kasurako. Ikuskizun dago babes horiek nolako bilakaera izango duten egungo testuinguruan, gobernu zentralak legitimitate txikia duen honetan. Argi dago, ordea, bi proposamen horien azpian gauza bera dagoela: EAEko instituzioei mekanismo gehiago ematea (adibidez, gizarte segurantzaren), enpresen posizioa hobetu eta gizarte maila batzuetan ongizate kuota batzuk mantendu daitezkeen, eta, halaber, gizarte maila horiek hauteskunde babesa eman diezaien.

Argi dago, ordea, gauza bera dagoela EH Bilduren eta EAJren proposamenen azpian: EAEko instituzioei mekanismo gehiago ematea, enpresen posizioa hobetu eta gizarte maila batzuetan ongizate kuota batzuk mantendu daitezzen, eta, halaber, gizarte maila horiek hauteskunde babesak eman diezaien

BALAZTA FAXISMOARI ETA NEURRI SOZIALAK

Gobernuko alderdiaren beste zutabeetako bat da –akaso inportanteena– PSOEk bere burua eskuin muturra blokeatzeko eta konkista sozialak lortzeko alternatiba erreal bakar gisa aurkeztea. Boto erabilgarriaren eta botoa alderdi sozialistaren inguruan kontzentratzearen estrategia hori oso eraginkorra ari da izaten babesa eta egonkortasuna lortzeko. Gainera, egonkortasun hori indartzen dute bake-tze sozialeko politikek, nagusiki PSOEk UGTn eta CCOOn dituen babes sindikalak eragindakoek; izan ere, Sánchezen alderdiaren beharren arabera aktibatzen eta desaktibatzen dira.

PSOEk ondo irakurri du testuinguru berria, bai hauteskundeei eta bai gizarteari dagokionez, eta hartara egokitu da, jakinik 2008tik aldatu egin direla gauzak, eta orain beste era batera egin behar direla. Eta, gauzak egiteko beste modu horren barruan, garrantzi ikaragarria du komunikazioaren elementuak, zeinak lotura estua baitu gertakariei buruz zeure narratiba ezartzeko gaitasunarekin. Sánchezen alderdia bete-betean sartu da borroka kultural horretan –eskuin muturrak denbora luzea darama horretan–, eta horrek polarizazio sozial handi samarra sortu du progresisten eta kontserbadoreen/erreakzionarioen artean. Garrantzirik gabeko gauzetan ere ikusten da hori, adibidez El Hormiguero eta La Revuelta telebista-saioen arteko ika-mikan.

Ikasturte politikoa uztailaren bukaeran amaitu zen, Pedro Sánchezek eman zuen prentsaurreko batekin: “Cumpliendo” izeneko agerraldi hartan, presidentea eta haren gobernua harrokeriaz mintzo ziren izandako aurrerapen “handiez”. Gobernua gero eta esfortzu handiagoa ari da egiten gezurrei eta fake news direlakoei aurre egiteko (interesatzen zaizkion horiei), eta gauzak hobetzen doaze-

lako kontakizuna ezartzeko. Aurrerapen horiek datu forman aurkezten dituzte, kudeatzaile on eta fidagarri gisa agertu nahian herritarren aurrean. Sozialdemokraziari –eta are gehiago orain– egiten duena aitortu behar zaio, eta ez egiten duela esaten duen hori. Ikus dezagun zein diren ahotan darabiltzaten aurrerapen horiek.

Neurri sozialak

Gobernuak lan erreforma bat bultzatu zuen aurreko lan erreforma (PPrena) indargabetzeko premisaren pean. Ordea, egungo lan testuingurura egokitu dute indargabetu baino gehiago, datuez gehiago makillatuta. Gobernuak paparra puztuta esaten du inoiz baino afiliatu gehiago dagoela eta milaka kontratu sinatzen direla, baina errealitatea da lan kaleratzeak merke ateratzen direla, eta prekarietateak gero eta gehiago egonkortzen jarraitu duela. Langabezia txikitzeak ez dakar ongizatea; horren adierazgarri da 2023. urtean lanean ari ziren 3,5 milioi pertsona pobrezia-atalasean egotea. Ez da ahaztu behar datuek, maiz, gehiago ezkutatzen dutela erakutsi baino. Hori ondo ikusten da langabeziaren datuarekin; izan ere, ez ditu barne hartzen aktibo ez dauden aldizkako langile finkoak, eta horrek %31 txikitzen du zenbaki hori. Prekarietatearen eta sasoikako lanaren testuinguru horri inflazioaren elementua gehitu behar zaio, datu batzuen arabera %15 inguru murrizten baititu soldataren diru-sarrerak.



Beste neurri handietako bat, Zapaterok bultzatutako erreformaren jarraipen gisa, erretiro adina atzeratzea da. 2025ean, 66 urte eta 8 hilabeteen dago adin hori, eta 2027an 67 urtekoa izatea da asmoa. Gobernuak esango du hobetu egin dela pentsiodunen egoera, baina, egiaz, Estatuko 4,6 milioi lagunek baino gehiagok 1.000 euro baino gutxiago jasotzen dituzte pentsioan, eta % 57 ez da iristen gutxieneko soldatara.

Urte gehiago eta baldintza okerragoetan egin beharko dugu lan, eta, laguntza sozialik behar baldin badugu, propaganda eta oztopo burokratikoak izango ditugu galanki, baina eraginkortasun eskasa. Datuek argi diote: laguntza horiek lortzeko modua izan dezaketen pertsona gehienek ez dute halakorik lortzen, eta lortzen dituzten horiei kontrol neurri zorrotzak aplikatzen zaizkie. Bitartean, gizartearen %20 pobreenak baino hiru bider laguntza gehiago jasotzen ditu %20 aberatsenak. Kontuan hartzekoa da soilik migratzaileen %11k jasotzen duela laguntza sozialen bat, nahiz eta batez bestekoak baino %30 txikiagoa den haien soldata, eta Europar Batasunetik kanpoko pertsonen %60,4 pobrezia-arriskuan dagoela. Garrantzitsua da hori gogoratzea gorakada erreakzionarioaren garaiotan.

Etxebizitza

Etxebizitza da eta izango da legealdi honetako beste gai nagusi bat. Etxebizitza Lege berriaren ekarpen handiak bolo-bolo darabiltzate gobernuak eta lege hori onetsi zuten bazkideek. Kapitalisten onurak bermatuz eta ziurtatuz arazoa konpontzea proposatzen du lege horrek. Bada denbora bat legea onetsi zela, eta denak konturatu dira arazoa larriagotu besterik ez dela egin. Prezioen alimaleko igoeraren eraginez, etxetik kanporatzen dituzte sektorerik zaurgarrienak, eta handitu egiten dira jendeak hilaren bukaerara iristeko dituen zailtasunak; horrek, halaber, eragina du beste arlo batzuetan, hala nola elikaduran eta pobrezia energetikoan. Baina barregarriena zera da, badirudiela PSOEek ez duela inongo erantzukizunik izan krisi honetan, baina bera izan dela 2008aren ondorengo azken higiezin ziklokoko protagonistetako bat, espekulatzaileei eta inbertsio funtsei atea ireki dizkiena. Gobernua eta haren bazkideak ezkututzen saiatzen badira ere, datuek argi hitz egiten dute: Batetik, 2021ean, 41.000 etxegabetze baino gehiago gauzatu zituzten, “debekatuta” egonagatik; bigarrenik, Langile batek soldataren 52 urte behar ditu etxebizitza bat erosteko; eta hirugarrenik, Alokairuaren prezioa %14 igo da 2024an bakarrik.

Eta beste aukerarik ez duzulako etxebizitza bat okupatu behar baduzu, gero eta zailtasun handiagoak izango dituzu, gogortzen ari baitira Zigor Kodea. Horri okupazioaren estigmatizazio soziala gehitu behar zaio, eta biztanle zaurgarrien kontrako diskurtsoak eta praktika faxistak –tartean desokupazio enpresak– legitimatzeko diskurtsoen ugaritzea. Eskuin muturrak elikatzen du fenomeno hori, baina gero eta presentzia handiagoa du gizartearen oro har eta arku parlamentario osoko diskurtsoetan.

Militarismoa

Militarismoaren munduko gorakadaren eta haren “Rearm Europe” adierazpenaren aurrean, bere burua Europaren mendekotasunetik bereizten saiatu da Sánchezen gobernua, gastu militarra %2 handitzeari edo Palestinako Estatua aitortzeari buruz egin dituen adierazpenetan ikusi dugunez. Beste behin ere, hori boto emaileen aurreko irudia hobetzeko makillajea da, errealitatean erabat subordinatuta baitago agenda atlantistara. Pedro Sánchezek iragarri du 10.000 milioi baino gehiago handituko duela aurrekontu militarra aurtan, eta NATOk agindutako %2 horretara iritsiko dela, 22 ministerioen artean bigarren finantzazio handiena defentsakoari emanez, soilik Inklusioko, Gizarte Segurantzako eta Migrazioetako Ministerioaren finantzazioaren atzetik.

Kanpo politikari dagokionez, nabarmentzekoa da Sánchezek etengabe babestu duela Ukraina: 2.950 milioi euro baino gehiago bidali ditu hara, 2.000 milioi euro baino gehiago laguntza militar zuzenean, 840 milioi laguntza finantzarioan eta 110 milioi laguntza humanitarioan. Gainera, “Ukraina

Gobernua aldatzeak eta, bitartean, zutabeek bere horretan jarraitzeak nahiko ondo laburbiltzen du azken hamarkadako Espainiako Estatuko politika: etengabeko aldaketasentsazio bat, egiaz ezer aldatu ez bada ere

GARAIA	KASU NAGUSIAK
80 – 90ak	GAL, Rumasa, Filesa, AVE, Seat, Guerra, Roldán, Urralburu, Salanueva
90en bukaera	Terán, Sanlúcar
2000–2010	ERE, FAFFE
2010–2025	Púnica, Tito Berni, Koldo/Ábalos, Mediador, Begoña Gómez, David Sánchez, Cerdán

berreraikitze bulegoa” sortu du, Espainiako enpresek negozioa egin dezaten gerraren suntsiketaz baliatuz. Bestalde, Saharako herria abandonatu du Marokoren autonomia-plana onartuz, eta, horrela, kolpe bakarrez deuseztatu du autodeterminazioaren aldarrikapen historikoa. Ez da ahaztekoa, orobat, Sánchezek Palestinako genozidioarekin duen konplizitatea, ez baitu triskantza horren kontrako neurri errealek hartu neurri kosmetikoez harago. Espainiako Estatuan ez da egon zigorrik, kontu izozterik, armamentuaren konfiskaziorik edo armagintza-enpresen negozioaren blokeorik.

Horrez guztiaz gain, errepresio neurriak handitu dira, izan agente errepresiboen kopurua handituz, izan Zigor Kodea gogortuz (ebasketak, okupazioa...). Horren harira, esan behar da ezen, historiako gobernu progresistenak Mozal Legea indargabetzeari buruz egindako promesak gorabehera, lege horrek 10 urte bete dituela aurten. Hamarkada horretan, 2 milioi zigor prozesu baino gehiago ireki ditu, 1.200.000 euro baino gehiago bildu ditu, eta %42,92 igo dira jarduera politikoari lotutako zigorrak. Ez da ahaztu behar Pablo Hásel eta Valtoney raperoen kontrako errepresioa, ezta La Suizako 6en kontrako kondena, duela gutxi aterea. Argi dago autoritarismorantzko joera ikusten dela, izan kanpoan, NATOren egitura militarra indartzen ari baita, izan Espainiako Estatuan, estatuaren errepresio mekanismoak sendotzen ari diren aldetik.

Ezkerrak ez du lapurtzen

Neurri handi batean, PPren ustelkeriak utzitako ajearen ondorioz iritsi zen gobernura PSOE. 7 urte geroago, egoera berean gaude: ustelkeria-kasuak tantaka-tantaka higitzen dute gobernatzen duen alderdia, eta oposizioak etekinak atera nahi ditu horretatik, eta gobernura bueltatu.

Bazirudien PSOEk babes nahiko handia zuela (Sumar, ERC, EAJ, EH Bildu, Junts...), baina hori guztia pikutara joan daiteke tartean sartuz gero

Espainiako politikagintzaren mamu zaharra: ustelkeria. Berriz ere, agerian gelditzen da egiturazkoa dela kargu publikoen eta botere ekonomikoaren esferako batasun eta elkarrekiko mendekotasuna. Kalkulu batzuen arabera, erregistratutako ustelkeria-kasu guztien kostuek 125.000 milioi euroko kostua izan dute (alderdi eta sindikatuetakoa; 588 bat kasu eta 3.848 kide inplikatura).


Ikusteko dago zer gertatuko den hurrengo hilabeteetan; izan ere, hauteskundeak 2027an badira ere, gobernu irailean hasten da hurrengo urteko aurrekontuak aurkezten eta haietarako babesa biltzen, eta badirudi komeriak izango dituela. Ikusiko dugu gobernuaren bazkideak zenbateraino diren egonkorak, edo ea gobernarritasun ezaren eraginez berriz aurreratuko dituzten hauteskundeak, non gobernatzeko probabilitate handia bailukete PPK eta VOXek.


ONDORIOA

Sistema hau intrintsekoki dago desordena konstante batekin lotuta, etengabeko turbulentzia eta aldaketekin, eta horrek isla zuzena du hauteskundeetako norgehiagokan. Aldaketa ekonomiko eta sozialek joan-etorriak sortzen dituzte alderdiek dituzten babesetan, inoiz gelditzen ez den gupil batean. 2008an, testuinguru ireki batean, aldaketa-momentu bat ekarri zuen; alderdi berriak sortu ziren eta zaharrek egokitu egin behar izan zuten. Hauteskunde-logikak etengabeko aldaketaren sentsazio faltsu bat sortzen digu; ordea, zutabeek beren horretan jarraitzen dute. Uste dut ideia honek nahiko ondo laburbiltzen duela azken hamarkadako Espainiako Estatuko politika: etengabeko aldaketa-sentsazio bat, egiaz ezer aldatu ez bada ere. Sozialdemokraziak, forma klasikoan edo populistan, bere funtzio historikoa erakutsi du: ordena soziala betikotzea, sistemak sortutako desatxikimendua boto bihurtuz eta iraultzarako aukera oro blokeatuz. ●

PSOE ALDERDI USTELA

Testua — **Aitor Gurrutxaga**





Espainiako Langile Alderdi Sozialistak 1888. urtean egin zuen lehen kongresua. Bartzelonan izan zen, eta guztira 60 pertsonak hartu zuten parte, hain zuzen, 20 asanbladetako bozeramaileek. Kongresu hartan, gutxienekoen eta gehienekoen programa, gainontzeko eragile politikoekin eduki beharreko harremana eta barne antolaketa onartu zituzten, besteak beste.

Oinarri politiko nagusiak honako hauek izan ziren: langileriak botere politikoa eskuratzea, jabetza indibiduala jabetza komun bihurtzea eta gizartea langile komunitate bidez antolatzea estatu kapitalistaren bidez beharrean. Finean, langile klasearen askatasun osoaren alde egingo zuen alderdi gisa ezaugarritu zuten alderdia, hau da, klaserik gabeko gizartea zuten xede.

Hurrengo urteetan alderdi zein eragile politikoa errepublikanoekin egindako aliantzak eta 1910. urtean parlamentuan eserlekuak lortu izanak gizartean eragiteko gaitasuna eman zion Alderdi Sozialistari. Gainera, UGT sindikatua sortu izanak eta harekin lotura organikoa edukitzeak are gaitasun handiagoa eman zion.

1931n 131 diputatu lortu zituen, eta bera zen errepublikanoen artean indar handiena zuen alderdia. Frankismoak, aldiz, zabalpena eta eragina zapuztu zizkion, gainontzeko alderdi politikoak bezalaxe legez kanpo utzi baitzuten. Horrek buruzagi askoren erbesteratzea eragin zuen.

Frankismo garaian zegoen alderdi indartsuena, ezker hegalean, Espainiako Alderdi Komunista (PCE) zen; batez ere, bera zelako militantzia sare handi eta sendoa zuena. Alderdi Sozialista, aldiz, kinka larrian geratu zen urte luzez, bai zuzendaritza erbesteratu zelako (nagusiki Frantziara eta Mexikora), bai barne gatazkak izan zituelako.

Frankismoaren azken urteetan berregituratu zen Alderdi Sozialista. 1974. urteko Suresneseko (Frantzia) kongresua ezinbestekoa izan zen horretarako. Zuzendaritza zaharra erbesteratuta zegoenez, belaunaldi berri batek hartu zuen gidaritza, tartean, Felipe Gonzálezek, Alonso Guerrak eta Jose Maria Benegasek. Horrekin batera, zenbait aldaketa estrategikoki hasi ziren lantzen, hurrengo urteetan aho batez onartuko zituztenak.

Alderdi Sozialista defendatu zuten Europako sozialdemokratek, bera izan zitekeelako erregimen frankistatik demokraziarako trantsizioa modu baketsu, ezkertiar, demokrata eta erreformistan bideratu zezakeena

Aipatu kongresua ezaguna da Espainiako Estatuak kanpoko hainbat alderdik babestu zutelako. Ez soilik estrategikoki; diruz, azpiegituraz eta kuadro politikoz ere hornitu zuten. Nagusiki, SPD (Alemaniako Alderdi Sozialdemokrata) eta PS (Frantziako Alderdi Sozialista) izan ziren Espainiako Langile Alderdi Sozialista berregituratzen lagundu zutenak, nahiz eta Espainiako Alderdi Komunista izan garai hartan frankismoaren oposizioko eragile indartsuena.

Kontuan eduki behar da garaiko testuinguruan sozialdemokraziak proiektu eta ibilbide propioa zuela, eta kasu askotan gatazkan zeudela komunistekin. Horregatik eta PCEren diskurtsoa sozialdemokratentzat erradikalegia zelako haiekiko mesfidantza zutenez, PSOE hautatu zuten haien aliatu gisa. Ondorioz, Alderdi Sozialista defendatu zuten, bera izan zitekeelako erregimen frankistatik demokraziarako trantsizioa modu baketsu, ezkertiar, demokrata eta erreformistan bideratu zezakeena.




***PSOEk alde batera utzi
zituen estatuarekiko
ikuspegi marxista eta
iraultza politikoaren
ideia. Hori dela
eta, kapitalismoa
ontzat eman eta
hura erreformatzeko
saiakerari heldu zion,
eta, beraz, Espainiako
Estatua gobernatu
ahal izateko hautagaia
bihurtu zen***

Ondorengo urteetan, Franco diktadorearen heriotza dela eta, hainbat alderdi legeztatu zituzten, tartean Alderdi Sozialista. Espainiako Estatuko testuinguru aldaketa baliatuta, 28. kongresua egin zuten, orduko hartan Madrilen.

Aipatu kongresua 1979an izan zen, eta, Suresneseko kongresuari jarraikiz, mota guztietako aldaketak eragin zituen alderdian. Horien artean, marxismoa doktrina politiko gisa haien programatik alboratzea erabaki zuten. Felipe Gonzálezek, azken 5 urteetan idazkari nagusia zenak, marxismoa alboratzea proposatu zuen, nahiz eta ofizialki alderdiaren oinarri politikoa zen. Haren ustez, modernizatu beharra zegoen, eta doktrina zaharrek ez zuten balio garaiko testuingururako. Ondorioa zera izan zen: delegatuen gehiengoak ezezkoa bozkatzea, Gonzálezek dimititzea eta gai hori lantzeko ezohiko kongresu bat egitea.

Hilabete batzuk geroago egin zuten ezohiko kongresua. Bertan, ordea, gehiengoz onartu zen Gonzálezen proposamena, eta berriz izendatu zuten idazkari nagusi. Hortik aurrera, Espainiako Langile Alderdi Sozialistak hau zioen bere buruari buruz: PSOE langileen alderdi sozialista demokratikoa da, zeina askatasunaren, berdintasunaren eta elkartasunaren alde borrokatzen den.



***Espainiako Langile Alderdi Sozialista,
haustura-alderdi izatetik urrun, frankismoaren
ondare politiko eta ekonomikoa mantentzeko
pieza izan zen. Diskurtso progresista eduki
bazuen ere, ez zuen inolaz ere auzitan jarri
ez monarkia, ez botere judiziala eta ezta
frankismotik herentzian jasotako estatua ere***

Gauzak horrela, eta Europako sozialdemokrazia-
ren lerroari jarraituta, sorrerako oinarri politikoei
muzin eginez berregituratu zen PSOE, eta bestela-
ko printzipioak adostu zituen; hobeto esanda, alde
batera utzi zituen estatuarekiko ikuspegi marxista
eta iraultza politikoaren ideia. Hori dela eta, kapita-
lismoa ontzat eman eta hura erreformatzeko saia-
kerari heldu zion, eta, beraz, Espainiako Estatua
gobernatu ahal izateko hautagaia bihurtu.

Frankismo ondorengo lehenengo bi hautes-
kundeak Adolfo Suárezek irabazi zituen. Nagusiki
berak diseinatu zituen Francoren heriotzaren on-
dorengo urteak. Gai izan zen denborak kudeatuz
eta kontsentsua bilatuz trantsizioa posible egite-
ko. Horrekin bat, prozesu horretan ezkerreko zein
eskuineko alderdien errepresentazioa egon zedin
lortu zuen, Espainiako testuinguru berriari egon-
kortasuna emateko asmoz. Hor kokatzen zen PSOE,
Suárezek diseinatutako planaren ezker hegalean.

1982an Felipe Gonzálezek gehiengo absolutua
lortu zuen. Espainiako Estatuko “aldaketa urtea”
deitu ohi zaio; izan ere, urte hartan UCD (Union
de Centro Democrático) alderdiaren bi legealdiak
albo batera utzi eta frankismotik demokraziarako
bidea marrazten hasi zen Alderdi Sozialista.

Erreformek ezaugarritu zituzten urte haiek,
erreforma sozial eta ekonomikoek zein hezkuntza
alorrekoek. Hauek izan ziren esanguratsuenak: Es-
painiako Osasun Sistema Nazionalaren (SNS), Hez-
kuntzarako Eskubideari buruzko Lege Organikoa-
ren eta gazteen enplegua sustatzeko egitasmoaren
sorrera.

Hori gutxi ez eta, Europako Komunitate Eko-
nomikoaren parte bihurtu zen Espainia, hain zu-
zen ere, gaur egun Europar Batasuna gisa ezagu-
tzen dugun horren parte. Espainia NATOren parte
izaten jarraitzeko erreferenduma ere Gonzálezek
lehen legealdian izan zen. 1982an, UCDk NATO
sartzea onartu zuen, eta PSOEk aurkako jarrera
mantendu zuen; Gonzálezek legealdian, ordea, al-
de batera utzi zuen ideia hori, eta, nahiz eta errefe-
renduma egin, hasiera-hasieratik defendatu zuten
bertan jarraitzea.

Aurkakoa pentsa badaiteke ere, erreforma eta
aldaketa horiek guztiek ez zuten inolako haustu-
ra estrukturalik ekarri frankismoarekiko, Alderdi
Sozialistak ez baitzuen garaiko botere ekonomikoa
aldatzeko saiakerarik egin. Horren erakusle dira
frankismo garaiko enpresa zein enpresarietako ha-
rremana mantendu edo indartu, enpresa publikoak
pribatizatu eta dozenaka *ate birakari* egin izana.

Hortaz, Espainiako Langile Alderdi Sozialista,
haustura-alderdi izatetik urrun, frankismoaren on-
dare politiko eta ekonomikoa mantentzeko pieza
izan zen. Diskurtso progresista eduki bazuen ere, ez
zuen inolaz ere auzitan jarri ez monarkia, ez botere
judiziala eta ezta frankismotik herentzian jasotako
estatua ere. Finean, haren sorrerako printzipio po-
litikoak alde batera utzi, eta boterearen eta estabi-
litatearen alderdi gisa indartu zen.

Urteak pasatu ahala, ikusten da PSOEk gauzatutako pribatizazioek enpresa eta enpresarien poltsikoak bete zituztela, eta zutena baino indar gehiago lortu zutela enpresa batzuek

PUBLIKOTIK PRIBATURA

Urteen poderioz, oligarkiarekin harremanak estutu eta haren mesedera jarduten hasi zen. Ikus, bestela, zenbat enpresa publiko pribatizatu, zenbat ate birakari egin eta zenbat korrupzio kasu atera zaizkion argitara bere historia laburrean.

1985. urtetik 1991. urtera 20 enpresa publiko inguru pribatizatu zituen, esaterako, Seat, Secoinsa eta Ateinsa. Guztiak internazionalizatu eta estatuen kargutik kentzea zen helburua, baina ez zen uste bezain ondo atera. Izan ere, askok ez zuten internazionalizatzea lortu, eta beste hainbat, pribatizatu ondoren ere, dirulaguntzaz hornitzen jarraitu zuen estatuak, tartean Seat.

Ildo beretik, Estatuak 350.000 milioi pezeta inguru gastatu zituen Seat enpresa saneatzeko, eta, ondoren, Volkswagen multinazionalari saldu zion. Horrela, azken horrek prezio baxuan eta zorrik gabe, ekoizpen gaitasuna eta Espainiako eta Europako merkatuetara sarbidea zituen enpresa bat erosi zuen.

Aurreko urteetan ez bezala, 1992. urtetik 1995. urtera bitarte, ustez errentagarriak ziren enpresa publiko batzuk pribatizatu zituen. Ordukoan 30 enpresa inguru izan ziren; Telefónica, Endesa eta Respol, besteren artean. Estatuaren defizit publikoa murriztu eta irabazi ekonomikoa lortzeko asmoz pribatizatu zituen enpresa guztiak, baina orduan ere ez zen horrela izan. Irabaziak ohiz kanpokoak izan ziren, ez egiturazkoak, eta Estatuak ez zuen lortu defizita gutxitzea.

Aipatu enpresa publikoek badituzte komunean ezaugarri batzuk. Hirurak gutxinaka-gutxinaka pribatizatu zituzten, zatiz zati saldu baitzituzten burtsan. Esan behar da Estatuari errentagarriak zitzaizkiola, baina pribatizatu egin zituela hala eta guztiz ere.

Aipatu pribatizazioek hainbat ondorio ekarri zituzten: enpresen jabetza enpresari kopuru edo sektore txikiago baten esku geratu zen, Espainiako Estatuak hainbat sektore estrategiko enpresarien esku utzi zituzten, eta etekinak lortu zituztenak Espainiako eta kanpoko enpresariak izan ziren.




Hori guztia ez zen pribatizazio plan gisa saldu, baizik eta kapitalismoa popularizatzeko (herritarren enpresen akziodun bilakatzeko) eta estatuak irabaziak edukitzeko plan gisa. Urteak pasatu ahala, ikusten da pribatizazioek enpresa eta enpresarien poltsikoak bete zituztela, eta zutena baino indar gehiago lortu zutela enpresa batzuek. Gainera, hurrengo urteetan Alderdi Popularrak enpresa publikoak nahieran pribatizatzeko atea ireki zuen Alderdi Sozialistak.

Alabaina, langileriarentzat ez zen enpresariarentzat bezain egokia izan. Hainbat enpresaren pribatizazioak aldaketa handiak ekarri zizkien bertako langileei, izan itxierengatik, izan kaleratzeengatik. Horretaz gain, langileriaren oinarritzko beharriaz netako batzuk enpresari handien esku geratu ziren, publikoak zirenean baino neurri handiagoan, eta haiek nahieran aldatu zezaketen dena; esaterako, auto baten prezioa edo hilero argindarrean ordaindu beharrekoa.

ATE BIRAKARIAK

Pribatizazioek ez zuten soilik enpresarien diru goseak asetzeko balio, Alderdi Sozialistak ere etekin handia atera baitzuen hortik. Izan ere, pribatizazioak begi onez ikusi ondoren, harremanak sendotu zituen haiekin, politikariak enpresa pribatuetan txertatzeko.

Espainiako Estatuak gobernantza-ereduan ate birakariak ohikoak izan badira ere, PSOE izan da kasu publiko gehien eduki dituenen, Alderdi Popularra baino gehiago. Felipe González-en gobernuaren garaian 60 pertsona inguru izan ziren, Zapaterorenean 55 inguru, eta, Pedro Sánchez-en, 10 inguru. Egia da ezin daitekeela zehatz-mehatz jakin zenbat kargu amaitu duten enpresa pribatuetan, aldaketa asko egon batira, baina ideia bat egiteko baliagarria izan daiteke.









***Espainiako Estatuko
governantza-ereduan
ate birakariak ohikoak
izan badira ere, PSOE
izan da kasu publiko
gehien eduki dituen,
Alderdi Popularra
baino gehiago***

Nagusiki energia, banku eta teknologia enpresetan amaitu dute politikari askok; adibidez, Endesan, Barclaysen eta Telefónican. Garrantziaz jabetzeko Felipe Gonzálezen kasua aztertu daiteke, bera izan baitzen enpresa publikoen pribatizazioak bultzatu eta politikako kargua utzi ondoren Gas Naturaleko goi karguetan lan egin zuena.

Beste hainbat kargu garrantzitsuk ere bide berbera jarraitu zuten. Narcis Serrak, lehendakariorde eta defentsa ministro izandakoak, Caixa Catalunya lehendakari eta Gas Naturaleko aholkulari gisa amaitu zuen. Pedro Solves Mirá Ogasun eta Ekonomiako ministroa izan zen bai Gonzálezen gobernuan eta baita Zapaterorenean ere, eta Enel eta Barclays enpresen aholkularia izan zen. Javier Solana Madariagak, Europar Batasuneko idazkari nagusia izandakoak, CaixaBankeko eta Eneleko aholkulari eta Accionaren kontseilu internazionalako partaide izaten bukatu zuen.



**USTELKERIAREN BIDEZ
ALDERDIA INDARTU**

Politikari profesionalen ibilbide laboralaz harago, ustelkeria kasu andana eduki ditu Alderdi Sozialistak; besteren artean, finantziazio irregularrari, diru partiden desbideraketari eta legez kanpoko komisiioei lotuak.

“Filesa” auzia entzutetsua izan zen, batik bat PSOEko 50 pertsona inguru inputatu egon zirelako, besteak beste José María Sala eta Carlos Navarro Kataluniako Alderdi Sozialistako (PSC) kargu esanguratsuak. 1989. urtean hiru enpresaren (Filesa, Malesa eta Time-Export) arteko trama bat sortzen saiatu ziren. Ondoren, 1.200 milioi pezeta bideratu zituzten alderdira. Espainiako lehen legez kontrako finantziazio argitaratua izan zen, eta eragin handia izan zuen beste alderdietan.

“Ibercorp” auzia, berriz, hiru urte beranduago gertatutako influentzia-trafiko kasu bat izan zen, hain zuzen ere, Espainiako Bankuarekin loturikoa. Kasu hartan, eduki zezakeen informazioa eman zion Mario Rubiori –Espainiako Bankuko kargu altua– Miguel Boyer Ekonomiako-ministroa zenak. Harreman eta informazio hori baliatuta, burtsan zituzten akzioak areagotzen zituzten, beren irabaziak handitzeko. Guztira, 7.100 milioi pezeta lapurtu zituzten.



PSOE ezin daiteke ulertu kapitalismotik kanpo, ezin daiteke ulertu haustura-alderdi gisa eta ezta 78ko erregimenik gabe ere. PSOE, nolabait ulertu behar badugu oligarkiarekin harremanean, burgesiaren ordenan eta kapitalismoan ulertu behar dugu

Andaluziako enplegu-erregulazioko espedienteen (ERE) kasuak ere zeresana eman zuen. Andaluziako batzordeak diru publikoa bideratzen zien kaleratzeak eta aurrejubilazioak ordaindu ezin zituzten enpresei. Dena dela, lagun, bitartekari eta enpresekin zerikusirik ez zutenek ere dirua irabazi zuten. Tartean ziren Manuel Chaves eta José Antonio Griñán, biak ala biak Andaluziako Juntako lehendakariak eta PSOEkoak. Gutxi gorabehera 1.200 milioi euroko iruzurra egin zuten.

PARTE-HARTZE PUBLIKOA

Hori irakurrita, pentsa daiteke PSOEren eta oligarkiaren arteko harremana bakarrik legez kanpoko izan dela, baina ez; izan ere, urteak joan eta urteak etorri parte hartu du bata bestearen ekitaldi zein foroetan.

Horren erakuslea da 1988an garaiko ekonomia ministroak Davoseko mundu mailako ekonomia foroan parte hartu izana. Hurrengo urteetan ere horrela izan da; 2025eko urtarrilean egin zen azkenekoa, eta Pedro Sánchezek hitz egin zuen hartan.

Hori gutxi balitz bezala, foro xumeagoetan ere parte hartu du alderdi sozialistak; besteren artean, enpresarien konferentzian hartu zuen parte 90eko hamarkadan, zeinak enpresariekin harremana sendotzeko balio zuen; 2000. urtean Forum European egon zen besteak beste Jose Luis Rodríguez Zapatero; eta 2025ean PRISA enpresa multinazionalak sortutako CREO foroan hartu zuen parte alderdiak.

DESITXURAKETARIK EZ

Alderdiaren bilakaerak eta kasu horiek guztiek erakusten dutena zera da: PSOEek eta oligarkiak, Espainiakoak zein nazioartekoak, harreman zuzena eta estua izan dutela elkarren artean, hau da, izugarria izan dela urte luzez bata bestea indartzeko egindako ahalegina. Beraz, gaur egun ez da existitzen sorreran behintzat kapitalismoaren aurka zegoen alderdi hura, bera baita Espainiako Estatuan kapitalismoak duen babesgune handienetarikoa.

Bide beretik, nahiago izan du sorrerako printzipio politikoei muzin egin eta kapitalismoa betikotu, batez ere, klaserik gabeko gizartea eta langile klaseraren askatasuna aldarrikatzetik kapitalismo ez hain txarra babestera igaro baita. Are gehiago, frankismotik demokraziarako bidea progresista izan zitekeelako ideia zabaldu zuen, inolaz ere moztu gabe frankismoaren herentzia politikoa eta soziala.

Hortaz, PSOE 78ko erregimenaren alderdia da; hain zuzen, monarkiarena, oligarkiarena eta ustelkeriarena. Bete-betea asmatu zuen Adolfo Suárezek demokraziari pluraltasun itxura ematen (ezker zein eskuin alderdiekin), eta horri esker Espainiako Estatuan kapitalismoa mantentzen.

Gainera, alderdia gai izan da Espainiako Estatuan egon zitezkeen gatazka politikoak apaldu eta haren ezkerrean egon zitekeena politikoki bereganatzeko. Hala erakutsi du urte luzeetan, trantsiziotik hasi -PCE jokoaz kanpo utzi zuenean- eta Kataluniako prozesu independentistara arte -non independentismoa lege bitartez apaldu baitu-. ●



BIBLIOGRAFIA

Andrade, J. (2006). *El PCE y el PSOE en (la) transición*. Siglo XXI de España Editores.

Maestre, A. (2025). *Franquismo S.A.* Akal.

Morán, G. (1991). *El precio de la transición*. Akal.

Sesma, N. (2010). *La dictadura franquista: Ni una, ni grande, ni libre*. Síntesis.

Brandariz Portela, T., Caamaño Deus, S., Campos Nieto, P., Casas Quiroga, P., & Filloy Martínez, L. (n.d.). *Casos de corrupción en España desde 1977 hasta la actualidad*. [Txosten akademikoa edo ikerketa].

Castillero, E., Moreno, A., & Castillo, A. (n.d.). *Transparencia y gobierno: puertas giratorias en España*. [Txosten akademikoa edo ikerketa].

Martín Urriza, C. (2001). *Breve historia de las privatizaciones en España*. Editorial Síntesis.

Argitalpena
2025EKO IRAILA
EUSKAL HERRIA

Koordinazioa,
erredakzioa
eta diseinua
GEDAR LANGILE
KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER ETA
INSTAGRAM
@ARTEKA_GEDAR

Kontaktua
HARREMANAK@
GEDAR.EUS

Harpidetza
GEDAR.EUS/
HARPIDETZA

Edizioa
ZIRRINTA
KOMUNIKAZIO
ELKARTEA
AZPEITIA

Lege gordailua
D-00398-2021

ISSN
2792-453X

Lizentzia



Argitaratzaileen oharra: Artekean ageri diren ideiak, baieztapenak eta ondorioak artikuluko bakoitzean sinatzen duten egileek dira.

arteka